

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urriaren 3a

112. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Miguel Servet Navarrabiomed Fundazioari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Miguel Servet Navarrabiomed Fundazioari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Miguel Servet Navarrabiomed Fundazioari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Miguel Servet Navarrabiomed Fundazioari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Nafarroako osasun-ikerketa publikoa: esku hartzen duten eragileak (3. or.).
 - II.1 Osasun Departamentua (3. or.).
 - II.2. Miguel Servet Fundazioa (4. or.).

II.3. Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua Fundazioa (IdiSNA) (6. or.).

II.4. Carlos III.a Osasun Institutua (8. or.).

III. Helburuak, norainokoa eta mugak (9. or.).

IV. Ondorioak eta gomendio orokorrak (10 or.).

V. Egindako lanaren azterketa (14. or.).

V.1. Osasun ikerketa publikoaren antolaketa (14. or.).

V.2. Miguel Servet Fundazioaren kontu orokorrak (18. or.).

V.3. Datu ekonomikoak (22. or.).

V.4. Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioaren jarduera (27. or.).

Miguel Servet Fundazioaren egoerari buruzko balantzeak, 2009-2015 urteetakoak (36. or.).

Miguel Servet Fundazioaren emaitzen kontuak, 2009-2015 urteetakoak (37. or.).

Miguel Servet Fundazioari buruzko Kontuen Ganbararen behin-behineko fiskalizazio-txostenari Miguel Servet Fundazioak aurkeztutako alegazioak (38. or.).

Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioari buruzko fiskalizazio txostenari Osasun Departamentuak aurkeztutako alegazioak (39. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (41. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko otsailaren 15ean, Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak proposatuta, erabaki zuen Nafarroako Kontuen Ganberari eskatzea Miguel Servet Fundazioari eta Nafarroako Foru Komunitateko osasun-ikerketari publikoaren finantza-iturriari buruzko fiskalizazio txosten bat (2009-2015 aldiari buruzkoa) egin zezan.

Eskaera hori Kontuen Ganberaren 2016rako fiskalizazio-programaren barruan sartu zen, eta auditore batek eta auditoriako bi teknikariek osatutako talde batek egin zuen, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenen deskribapen labur bat egiten da Nafarroako osasun-ikerketari publikoari buruz; hirugarrenean, helburuak, norainokoa eta mugak aurkezten dira; laugarrenean, txostenaren ondorioak eta gomendio orokorrak jasotzen dira; eta bosgarrenean, azkenekoan, egindako lanaren azterketa bat egiten da.

Halaber, eranskin bat dago Miguel Servet Fundazioaren 2009tik 2015era bitarteko balantzeekin eta emaitzen kontuekin.

Jarduketa honen emaitzak Miguel Servet Fundazioaren egungo zuzendariari, CIMako kudeatzaile zuzendariari, Osasun Departamentuko kontseilari ohiei, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari, Nafarroako Unibertsitateko errektoreari eta Osasuneko kontseilariari azaldu zitzaizkien, kasua bazen egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkez zituzten, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Ezarritako epea iraganda, Miguel Servet Fundazioaren eta Osasuneko kontseilariaren —aldi berean, Miguel Servet Fundazioko lehendakaria da— eta IdiSNA Fundazioaren alegazioak jaso eta txostenari gehitu dizkiogu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Osasun Departamentuko, Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioko, IdiSNA Fundazioko eta Bionostia Osasun Ikerketarako Institutuko langileei, lan hau egiteko eman dituzten laguntzarengatik.

II. NAFARROAKO OSASUN-IKERKETA PUBLIKOA: ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

Nafarroako osasun-ikerketa publikoa Osasun Departamentuaren menpekkoa da eta, funtsean, Miguel Servet Fundazioaren eta Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuaren (IdiSNA) bitartez artikulatzen da. Gogoan izan beharra dago, halaber, Carlos III.a Institutua, Espainiako ikerketa biomedikoaren arloko organismo nagusia baita.

II.1 OSASUN DEPARTAMENTUA

Osasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 28ko 132/2015 Foru Dekretuak, hainbat unitateren artean, Plangintzarako, Ebaluaziorako eta Ezagutza Kudeatzeko Zerbitzua jasotzen du, zeinak, honako hauek baitaizka bere eginkizunen artean:

- *Miguel Servet fundazioarekin elkarlanean, osasun zientzietarako helburuak eta ikerketa-ildoak ezartzea, eta ikerketarako ekipoa eta ildo egonkorak sortu eta mantentzearen sustapena.*
- *Miguel Servet fundaziorako eginkizunen esleipena proposatzea eta horiek nola gauzatzen diren gainbegiratzea,*
- *Nafarroako Foru Komunitateak ikerketaren alderdi etikoak egiaztatu eta baimentzeko dituen eskumena garatzea, Ikerketarako Etikako Batzordeei babesa eta laguntza emanaz.*
- *Proiektuak, ikertzaileak eta zentroak koordinatzea eta euren arteko sinergiak sortzea, Nafarroako Osasun Sistemako ikerketa-baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko, Miguel Servet fundazioaren laguntzarekin.*
- *Ikerketa biomedikorako laguntzak kudeatzea eta Osasun Departamentuaren baimen espresa behar duten proiektuak ebaluatzea.*
- *Kalitate zientifiko-teknikoa eta bikaintasun klinikoa sustatzea, ebidentzia zientifikoa osasun laguntzako praktikan erabil dadila sustatuz, lanbide erakundeekin eta zientzia elkarteekin elkarlanean.*

Zerbitzu honek zenbait atal badauzka; besteak beste, Ikerketarako, Berrikuntzarako eta Ezagutza Kudeatzeko Atala. Azken horrek betetzen ditu "foru dekretu honetan ezartzen diren eginkizunak, ondoko arlo hauean: osasun zientzien arloko ikerketaren sustapena eta orientazioa, Miguel Servet Fundazioaren eginkizun esleipena barne; ezagutza eta kalitate zientifikoaren sustapena eta hedapena; osasun zientzien arloko liburutegiaren kudeaketa; eta argitalpenen edizioa, eta osasun arloko teknologien berrikuntza eta ebaluazioa".

II.2. MIGUEL SERVET FUNDAZIOA

Miguel Servet Fundazioa fundazio pribatu gisa eratu zen, Nafarroako Gobernuak hala nahi izan zuelako, irailaren 26ko 211/1986 Foru Dekretuaren bitartez, Nafarroako Gobernuaren babesarekin. Fundazioa eratzeko eskritura publikoa 1987ko urtarrilaren 13an egin zen.

Nafarroako Gobernuaren 2006ko maiatzaren 2ko Erabakiaren indarrez, fundazio publikoaren izaera dauka, eta Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoaren atal bat da.

Miguel Servet Fundazioa Foru Komunitateko osasun administrazioaren laguntza zientifiko eta tekniko-rako organismo baten gisara eratu zen, bereziki irakaskuntza-jardueretan eta osasunaren arloko ikerketa sustapenean jarduteko. Fundazioak gaitasun juridiko osoa du, eta bere helburuak jarduteko gaitasun osoa.

Ikerketa Biomedikorako Zentroa (IBZ), 1994an inauguratua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen ikerketarako zentro tekniko bat zen. 2007an, ikerketa areagotu eta hobetzeko, 2007-2011 aldirako Ikerketarako Plan Estrategikoa garatu zen, eta Nafarroako Gobernuak Ikerketa Biomedikorako Zentro berri bat sortzea onetsi zuen. Zentroaren eraikuntza, 2011n amaitua, Kontuen Ganberaren beste txosten batzuetan aztertu izan dugu, eta horri buruz jakin nahi bada haietara jo daiteke.

Honako hauek ziren IBZren eginkizunak:

- *Osasun zientzien arloko ikerkuntzaren garapena sustatzea.*
- *Ikerkuntzaren beharra duten osasun arazoak antzematen laguntzea.*
- *Ikerketarako oinarrizko ekipamendu bat bermatzea.*
- *Ikerkuntzaren metodologiari buruzko aholkuak ematea (berariazko arloetako adituak).*
- *Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ikertzaileek proposatzen dituzten ikerketa proiektuak bideratzea.*
- *Ikertzaileen etengabeko prestakuntza sustatzea.*
- *Osasun Zuzendaritza Nagusiari eta erakunde autonomoei ikerkuntzaren arloan aholkuak ematea.*
- *Dokumentazio grafikoko baliabideak kudeatzea.*
- *Hornidura kliniko-esperimentalak eta material biologikoko bankuak kudeatzea.*
- *Teknologia berriak garatzea.*
- *Beste ikerketa-unitate eta sare batzuekin batera nazioko eta nazioarteko proiektuetarako ekarpenak egitea.*

Uztailaren 18ko 62/2012 Foru Dekretuaren bitartez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Estatutuak onetsi ziren. Horren ondorioetako bat Ikerketa Biomedikorako Zentroa desagertzea izan zen. Desagertze horren ondorioz, beharrezko gertatu zen Fundazioaren estatutuak aldatzea, zentroaren eginkizunetatik batzuk bere gain har zitzan, Gobernuaren 2012ko uztailaren 18ko Erabakian onetsi zen bezala.

Hau da, une horretatik aurrera, IBZk Navarrabiomed izena hartu zuen, eta jada entitate bakar bati buruz hitz egin daiteke: Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioa, prestakuntzaren eta ikerketaren arloetan diharduena.

Patronatuko kide guztiak Nafarroako Gobernuak edo Nafarroako Unibertsitate Publikoak dira.

2009tik Fundazioan zentralizatzen da saiakuntza klinikoaren kudeaketa. Saiakuntza klinikoaren ikerlan bat da, pertsonekin egiten dena, zeinak aukera ematen baitu jakiteko tratamendu, medikamentu edo gailu berri bat lagungarri gertatzen den gaixotasun bat prebenitu, diagnostikatu edo tratatzeko. Saiakuntza klinikoek, halaber, aukera ematen dute jakiteko ea tratamendu berri horiek seguruak diren edo lehendik dauden tratamenduak baino hobekien diren.

Medikamentu berri baten garapenaren fase preklinikoak (laborategikoa) demostratzen duenean lehendik dagoen tratamendurako hobekuntza bat ekar dezakeela, ikerketa esperimentalak egin beharra dago, gizaki-ekin, saiakuntza klinikoaren bitartez.

Saiakuntza klinikoaren aitortutako ikerketa zientifikoaren oinarri metodologikoa onena dela.

Osasun zentro batean saiakuntza kliniko bat abian jarri aurretik, zentro horretako Ikerketa Klinikorako Komite Etikoaren (IKKE) onespena behar da. IKKE osasunaren arloko profesionalak eta osasun arlokoak ez diren kideek osatutako organismo bat da, eta haren eginkizun nagusia da ikerlanetan parte hartzen dutenen eskubideak, segurtasuna eta ongizatea zaintzea.

Horretaz gainera, saiakuntza egin baino lehen Osasun Ministerioko Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren baimena behar da.

Saiakuntzak Jardun Kliniko Egokiaren kalitate etiko eta zientifikoari buruzko nazioarteko arauaren arabera egin behar dira. Arau hori betetzeak berme publiko bat ematen du, saiakuntzako parte-hartzaileen eskubideak, segurtasuna eta ongizatea babesteari dagokionez, eta, halaber, saiakuntza klinikoaren datuen sinesgarritasuna bermatzen du.

2014an eta 2015ean Fundazioak honako oinarritzko datuak dauzka:

	2014	2015
Jardueraren diru-sarrerak	3,3 milioi	3,6 milioi
Langileen kostua	2,5 milioi	2,5 milioi
Jardueraren soberakina	5.000 euro	-0,48 milioi
Langileak, batez beste	63,51	65,81
Ekitaldi-itxierako langileak	76	75

75 pertsona horiek honela banatzen dira:

Zuzendaritza	2
Administrazioa eta ikerketarako laguntza	28
Ikertzaile berekiak	12
Honaino, guztira	42
Proiektuetarako kontratatutako ikertzaileak	33
Guztira	75



Laborategi baten ikuspegia.

Txosten hau egiteko aldian, bi hitzarmen sinatu dira Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin unibertsitateko ikertzaileak Navarrabiomeden integrazteko.

II.3. NAFARROAKO OSASUN IKERKETARAKO INSTITUTUA FUNDAZIOA (IDISNA)

Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua Fundazioa 2010ean sortu zen, Nafarroako Gobernuaren, Nafarroako Unibertsitatearen eta zenbait enpresaren parte-hartzearekin. Haren sorrerako zuzkidura 47.000 eurokoa izan zen, eta honako hauek jarri zuten:

Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra	10.000
Banco de Santander S.A.	10.000
Caja Rural de Navarra, S.Coop. de Crédito	6.000
Laboratorios Cinfa S.A.	6.000
Viscofan, S.A.	4.000
Vega Mayor S.L.	2.000
3P Biopharmaceuticals S.L.	3.000
Teknovas S.A.	3.000
Digna Biotech, S.L.	3.000
Guztira (euroak)	47.000

Helburuak

Interes sozialeko gisa sortu zen fundazioa, inongo irabazi asmorik gabe eta izaera pribatuarekin.

Fundazioaren helburua da Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua garatzea, bultzatzea eta aurrera eramatea, Osasun-ikerkuntzarako institutuak egiaztatzeari buruzko otsailaren 27ko 339/2004 Errege Dekretuan edo hura aldatzen duen araudian ezarritako definizioaren eta betekizunen arabera, eta, oro har, osasunarekin eta herritarren gaixotasun eta gaitz guztien tratamenduarekin lotutako ezagutza zientifikoa bultzatzea.

Horretarako, institutuaren ikerketa-taldeak bultzatu, lagundu eta finantzatu dira bereziki. Xede horrekin, Fundazioak talde horien lankidetzat sustatu eta bultzatu du, halako moduz non beren proiektu eta ikerketak koordinatuko dituzten, zentroyen arteko laguntza bideratuko den eta ikerketa traslazionaleko proiektuen arteko sinergiak sortuko diren, errekerimendu sozialen arabera. Testuinguru horretan, Fundazioak funtsak bereganatzeko lanak egin beharko ditu ikerketa-jarduerak finantzatzeko eta Institutuaren inguruan ikerketara bideratutako baliabideak efizientziaz kudeatzeko.

Fundazioaren helburuak honako jarduketa hauen bitartez gauzatu ahalko dira, besteak beste:

- *Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuaren osasun zientziei buruzko ikerketa arloak identifikatu eta sustatzea.*
- *Nafarroako ikerketa zentroyen eta haiek osatzen dituzten lantaldeen osasun zientzien arloko jarduera zientifikoa bultzatu eta finantzatzea.*
- *Ikerketaren zerbitzura jarrita dauden Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuaren baliabideen erabilera optimoa bultzatzea.*
- *Ikerketaren arloko aholkua ematea Institutuaren laguntzen hartzailerak diren ikerketa-zentro eta lantaldeei.*
- *Sortzen ari diren ikerketa-taldeak identifikatzea eta Institutuaren plan estrategikoak garatu eta eguneratzea.*
- *Baliabide publiko eta pribatuak ingura daitezen bultzatzea, Institutuaren ikerketa-programa eta proiektuak egin daitezen sustatzeko eta koordinatzeko behar diren finantzaketa-bitartekoak lortzeko.*
- *Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuaren ikerketa-jarduera lotu eta koordinatzea zentro eta entitate homologoekin, nazionalak nahiz beste herrialde batzuetakoak izan, eta baterako jarduketa programe-tan parte hartzea.*
- *Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuaren jardueraren emaitza diren ekitaldi zientifikoak zabal-tzea, komunitate zientifikoarentzat baliagarriak izan daitezen.*

- *Ikerketa biomedikoaren arloko erreferentzia-gune bat eratzea eta, horrenbestez, ikerketa-jarduerak taldeei planteatzen dizkien arazoak konpontzen laguntzea.*
- *Ikerketa biomedikoaren baldintzen eta ezaugarrien eta lortutako emaitzen ezagutza aldeztara bideratutako irakaskuntza- eta prestakuntza-programetan parte hartzea.*
- *Ikerketak sortutako jakintza gizarteari eta osasun inguruneari helaraztea.*
- *Ezarrita dituen helburuak lortzeko egokitzat jotzen diren gainerakoak.*

Onuradunak

Estatutuen 9. artikulua arabera, "Fundazioaren onuradun potentzialak izanen dira Fundazioaren helburuetan sartzen den jardura egiten edo garatzen duten pertsona fisiko guztiak, edo Fundazioak ematen dituen zerbitzuak edo laguntzak eskatzen dituztenak, haien beharra dutelako.

Halaber, onuradun potentzialak izan ahalko dira nortasun juridikoa duten entitate publiko eta pribatuak eta haien zentro edo zerbitzuak, baldin eta beren sorrera-arauen edo estatutuen arabera Fundazioak burutzen edo sustatzen duenarekin bat datorren jardura bat garatzen badute. Aipatze hutsezko izaera ez mugatzailearekin, honako hauek izan ahalko dira Fundazioaren onuradun: Nafarroako Ospitalegunea, Osasun Publikoaren Institutua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntza, Ikerketa Biomedikorako Zentroa, Miguel Servet Fundazioa; Nafarroako Unibertsitate Klinika, Ikerketa Mediko Aplikatuko Zentroa; Nafarroako Unibertsitateko Medikuntza Fakultatea, Farmazia Fakultatea, Zientzietako Fakultatea, Farmakobiologia Aplikatuko Ikerketa Zentroa (CIFA) eta Nafarroako Institutu Zientifiko eta Teknologikoa (ICT S.A.).

Kalitatearen, inpartzialtasunaren eta bazterketa ezaren irizpideak erabiliko ditu Patronatuak onuradunak aukeratzeko.

Organoak

Patronatuaz gainera, honako hauek izanen dira Fundazioaren organoak: Patronatuaren Batzorde Delegatua, zuzendari zientifikoa, Barruko Komite Zientifikoa eta kudeaketaren arloko zuzendaria. Guztiek ere estatutuetan ezarritakoaren arabera beteko dituzte beren eginkizunak. Patronatuaren aholkurako organo gorena Kanpoko Komite Zientifikoa izanen da.

Jarraian, organo hauen alderdi aipagarrienetako batzuk iruzkinduko ditugu.

Fundazioaren Patronatua hamalau kidek osatuko dute: Lehendakaria, lehendakariordea eta hamabi kide. Hona xehetasunak:

- *Lehendakaria Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko titularra edo hark kargurako izendatzen duen pertsona izanen da.*
- *Lehen lehendakariordea Nafarroako Unibertsitateko errektorea edo berak eskuordetutako pertsona izanen da.*
- *Hiru kide Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko titularrak izendatuko ditu Nafarroako Ospitalegunearekin lotutako pertsonen artean.*
- *Hiru kide Nafarroako Unibertsitateko errektoreak izendatuko ditu Nafarroako Unibertsitate Klinikarekin lotutako pertsonen artean. Horietako bat idazkaria izanen da.*
- *Hiru kide Nafarroako Osasun Departamentuko titularrak izendatuko ditu Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuarekin lotutako pertsonen artean.*
- *Hiru kide Nafarroako Unibertsitateko errektoreak izendatuko ditu arlo biosanitarioekin lotutako Nafarroako Unibertsitateko pertsonen artean.*

Baldin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak erabakitzen badu Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua Fundazioan parte hartzea, hiru kide izanen ditu Patronatuan, eta horiek Nafarroako Osasun Departamentuari lotutako hiru kideak ordeztuko dituzte. Hiru kide horietako bat Patronatuko bigarren lehendakariordea izango da.

Patronoek ez dute inongo ordainsaririk jasoko beren kargua betetzeagatik.

Kudeaketa-zuzendaria, Osasun Departamentuko titularrak izendatua, lan administratibo eta ekonomikoaren arduraduna izanen da.

Zuzendari zientifikoak, Unibertsitateko errektoreak izendatua, Institutuaren jarduera zientifikoa zuzenduko du.

Zuzendari zientifikoak, ikerketa arloetako kide koordinatzaileek, zentroetako ordezkari diren kideek eta idazkari batek Komite Zientifikoa osatuko dute.

Komite Zientifikoa IdiSNAk garatzen dituen ikerketa-proiektuak eta ikerketa-taldeak proposatzeko, planifikatzeko, kudeatzeko, kontrolatzeko eta ebaluatzeko organo nagusia da.

2015eko otsailaren 20an, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zen IdiSNA Fundazioarekin, Nafarroako Unibertsitatearekin eta Miguel Servet Fundazioarekin, IdiSNA Fundazioa abian jartze aldera funts galduko 140.000 euroko diru-laguntza emateko. Unibertsitateak eta Miguel Servet Fundazioak jarri zuten funts hori erdibana.

Akordio horren jatorria estatutuaren 2014ko otsailean egin zen aldaketa batean dago. Aldaketa horretan aipatzen da Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua sortzen dela Nafarroako Foru Berriaren 44. legearen babesean, eta haren ondarea beti erabiliko dela Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuak berezko dituen interes sozial eta orokorreko xedeak aurrera eramateko.

Hau da, 2010ean sortu zen arren, 2014ra arte ez du ia jarduerarik.

2014ko kontuei erreparatuta, entitateak, bere jardueraren emaitza gisa, 269 euro aurkeztu zituen. 2015ean, ordea, honako oinarritzko datuak aurkeztu zituen:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Jardueraren diru-sarrerak	140.000
Langileen kostua	20.146
Beste gastu batzuk	90.858
Jardueraren soberakina	28.996

II.4. CARLOS III.a OSASUN INSTITUTUA

Carlos III.a Osasun Institutua Espainian ikerketa biomedikoa finantzatzen, kudeatzen eta burutzen duen ikerketaren arloko organismo publiko nagusia da. Gainera, Osasunaren Ekintza Estrategikoaren organismo kudeatzailea da, I+G+b arloko Plan Nazionalaren esparruan.

Organikoki Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari atxikia dago eta funtzionalki, berriz, bai ministerio horri, bai Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioari ere, eta egiteko nagusi gisa dauka ezagutza zientifikoa sortzea osasun zientzien esparruan eta osasun arretaren eta gaixotasunen prebentzioaren arloetan berrikuntza sustatzea.

Carlos III.a Osasun Institutuaren eginkizunek hiru zutabe dauzkate:

- Ikerketa biomedikoa: bikaintasuneko eta lehiakortasun handiko ikerketa sustatu eta garatzea.
- Zerbitzu zientifiko-teknikoak: Erreferentziako zerbitzuak ematea Estatuko Administrazio Orokorrari eta Osasun Sistema Nazionalari euskarria emate aldera.
- Osasun prestakuntza zientifiko-teknikoa: osasun publikoaren, osasunaren arloko zuzendaritzaren eta kudeaketaren eta zuzendaritza eta kudeaketa zientifikoaren esparruetan prestakuntza-programak egitea, funtsean osasunaren arloko profesionalentzat.

Honako hauek ditu helburu nagusi:

- Osasun zientziei buruzko ezagutza sortzea.
- Biztanleriaren osasunean eragin positiboa izatea.
- Aberastasuna sortzea berrikuntzaren bidez eta enpresa-izaerako ekimenen bitartez.

Laburbilduz, Carlos III.a Institutuak osasun ikerketarako institutuak kreditatzen ditu, eta kreditatze horrek kualifikazio handiagoa eta institutuak berak finantzatzeko ikerketa-proiektuetarako berariazko deialdiarako sarbidea ematen die. Carlos III.a Institutuaren kreditatzea lortzea da bilatzen dena, Nafarroak osasunaren ikerketaren arloko zentro aitortu bat eduki dezan.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Parlamentuko eskaera kontuan hartuta, hauek dira lan honen helburuak:

- Nafarroako ikerketa biosanitarioaren antolamendua eta kudeaketa aztertzea.
- Miguel Servet Fundazioak aurkeztutako kontuen zuzentasuna egiaztatzea, bai ikuspuntu finantzariotik, bai legearen ikuspuntutik.
- Ikerketa-jarduerari buruzko datu ekonomiko nagusiak aurkeztea: gastuak eta finantzaketa.
- Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioaren jarduera aztertzea.

Osasun ikerketara bideratutako ahalegina bere testuinguruan jartzeko antzeko entitate edo enpresen datuak aurkezten ditugu.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; arau horien barruan, "Fiskalizazio operatiboari buruzko oinarrizko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 300 araua aplikatu da.

Gure lana egiteko, funtsean, honako informazioa aztertu dugu:

- Miguel Servet Fundazioaren eta IdiSNA Fundazioaren kontuak eta auditoriak.
- Miguel Servet Fundazioaren oroitidazkiak.
- Fundazioen dokumentazio orokorra: estatutuak, aktak, akordioak eta abar.
- Nafarroako Gobernuaren kontabilitate-datuak, osasun ikerketari dagozkionak.
- Lana egiteko beharrezko suertatu diren bestelako agiriak; esate baterako, Miguel Servet Fundazioaren espedienteak, ikerketari buruzko araudia eta abar.
- Kontuen Ganberak gai honi buruz egindako txostenak; honako hauek, zehazki: Osasun azpiegituren gastua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laborategien bateratzea eta SODENA enpresa publikoaren inbertsioak (2002-2013).

Halaber, elkarrizketak izan ditugu Miguel Servet Fundazioko, IdiSNA Fundazioko eta Osasun Departamentuko arduradunekin, eta bisita bat egin genuen Biodonostia Osasun Ikerketarako Institutura.

Ondoren, txostenerako mugak diren edo hartan daukaten eragina dela-eta kontuan hartu behar ditugun zenbait alderdi iruzkinduko ditugu:

- Aztertutako aldian, aldaketak gertatu dira bai Nafarroako Gobernuko departamentuen osaketan eta izendapenean, bai aurrekontu-programetan ere. Hori dela eta, litekeena da ikerketara bideratutako kontu-sail guztiak kontuan hartu ez izana. Halaber, aipatu beharra dago ikerketa programek beste kontzeptu batzuk ere jasotzen dituztela, hertsiki ikerketari ez dagozkionak.
- Industria Departamentuaren plan teknologikoei buruzko datuek berrikuspen lan exhaustibo bat eskatuko lukete osasun gaietara bideratutakoak zein diren ezagutzeko, eta horrek gehiegi luzatuko luke lan hau egiteko daukagun denbora. Oro har, laguntza hauek gehiago bideratzen zaizkie entitate pribatuei publikoei baino.
- Ikerketa proiektuetarako finantzabideak era askotakoak dira, eta haiek emaitzen kontuetara sartzen dira proiektuak egiten diren neurrian; hori dela eta, emandako zenbatekoek eta haien exekuzioak era askotako erritmo eta zenbatekoak daukate.
- Batzuetan erreferentzia egiten zaio 2009-2015 aldiari eta beste batzuetan, berriz, 2012-2015 aldiari, zeren eta 2012tik aurrera, osasun-ikerketarako eraikina egin zenetik, hasi baitzen ikerketa-jarduera handitzen. Horrek, aurreko lerroketan aipatutakoarekin batera, eraman gaitu irizpide bat eta bestea erabiltzera.
- Ikerketaren kudeaketarako prozedurek beren berezitasuna daukate, arloagatik baragatik eta hartan esku hartzen duten enteengatik.
- Aintzat hartu beharra dago bereizi beharrekoak direla, batetik, Nafarroako aurrekontu publikoetan ikerketara bideratzen diren funts publikoak —haien hartzaileak entitate publiko zein pribatuak izan daitezke— eta, bestetik, Miguel Servet Fundazioaren bitartez osasun ikerketa publikora bideratzen direnak.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

Eginiko lanean oinarriturik, honako ondorio hauek atera ditugu:

Antolamendua.

1.a) Azken urte hauetan, Nafarroako Gobernuak osasun arloari buruzko ikerketa bultzatu du, Nafarroako etorkizun ekonomikoaren zutabeetako bat izan dadin. Horri dagokionez, alderdi esanguratsuenen artean aipa daiteke Navarrabiomeden sorrera, IdiSNA abian jartzeko akordioak eta ospitalearen barrutian ikerketa-zentroaren egoitza izanen zen eraikina egin izana.

2.a) Hainbat plan orokor badaude ere, Navarrabiomeden sorrerak eta ezarpenak ez du plan estrategiko berekirik izan. Izan ere, horrek berarekin ekarri du ikerketaren helburu batzuk ez izatea; hain zuzen ere, finkatutako irizpide batzuk, haien gainean funtzionamendurako gutxieneko egitura bat eraiki ahal izateko, eta haiek finantzatzeko modua falta izan dira.

3.a) Aurrekontu-ahalegin handiena eraikina egitea izan da, 21,1 milioiko kostua izan baitu. Proiektuak aurreikusten zuen, eraikina aldi baterako biltegi gisa erabiltzea, eta laborategia ezarri da bertan; beraz, honako hau da haren egungo erabilera:

Erabilera	Metro koadroak	Ehunekoa
Navarrabiomed	3.972	34
Laborategia	2.637	22
Biltegia	2.379	20
Liburutegia	375	3
Komunak	2.402	21
Guztira	11.765	100

Esanguratsua da eraikinaren kalifikazio energetikoa "G" dela, hau da, efizientzia txikienekoa.

4.a) Nafarroak ez du ikerketarako institutu ziurtaturik. Osasun Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko lankidetzak da Nafarroak osasun ikerketarako zentro ziurtatu bat edukitzea bermatzeko modua, hartara Carlos III.a zentroak osasun ikerketarako ematen dituen funtsak errazago eskuratu ahal izateko. Hori dela eta, exijitzen diren baldintzak betetzen ez direnez, 2014an, IdiSNA aktibatu da, eta institutu horrek ziurtagiria eskatu du, alde aurretiko auditoria gainditu du eta zenbait proiektutarako finantzaketa lortu du 2015erako.

Eredu konplexu horrek, non batera baitaude ikerketa publikoko zentroa, Unibertsitatearen zentro pribata eta IdiSNAren bitartezko batera biltzea, funtzionamendurako akordio eta hitzarmen batzuk badauzka, nahiz eta gure ustez oraindik ere definitzeko eta zehazteko gelditu diren funtzionamendurako prozedura administratiboak.

Fundazioaren kontuak eta finantzaketa

5.a) Miguel Servet Navarrabiomed Fundazioaren kontuak kanpoko enpresa batek auditatzen ditu, eta aldeko iritzia ematen du urtero.

6.a) Orokorrean, Miguel Servet Fundazioaren jarduera aplikatzekoa zaion araudiaren arabera egiten da.

7.a) 2015ean, lehenengo aldiz, galerak izan ziren, 486.707 eurokoak. Emaizta hori gertatzen da nagusiki ikerketarako jasotako diru-laguntzek finantzatzen ez dituzten gastuek egiturazko finantzaketaren zenbakekoak (Osasun Departamentuaren ekarpena eta egiturazko gastuetarako proiektuak) gainditzen dituztelako.

Horri dagokionez, esan beharra daukagu ezen 2009tik 2014ra Miguel Servet Fundazioak Europako Gize Funtsetik heldu diren diru-sarrerak kontabilizatu dituela, 831.103 eurokoak; 2015erako aurreikusita-koetatik, berriz, ez du ezer ere jaso kontzeptu hori dela-eta, eta horixe da ekitaldiko galeren arrazoi nagusia.

2015eko abenduaren 31n erabilgarri dauden baliabide garbiak, diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bat eginez lortutakoak 167.264 euro negatiboak dira; horrek esan nahi du 2015ean ikerketarako bideratzekoa zen diruzaintza-aurrerakina egiturazko gastuak finantzatzeko erabili dela, erabili ere proiektuei egoztekoak zaizkien kostuez gorako portzentajea.

8.a) Ondare garbia positiboa bada ere, funts berekiak negatiboak dira 2015ean, ekitaldiko emaitzaren ondorioz eta aurreko urteetako emaitzetan egindako doikuntzen ondorioz. Egoera hori zuzendu egin beharko litzateke.

9.a) Miguel Servet Fundazioaren guztizko gastu korranteak (langileak eta erosketak) 3,7 milioikoak dira 2015ean; horrek esan nahi du 2009ko gastuekin alderatuta ehuneko 191ko iguera gertatu dela.

10.a) Fundazioaren egituraren finantzaketa hurrengo taulatik ondorioztatzen dena izan da 2015ean:

Gastuak	Finantzaketa			
	Zenbatekoa	Nafarroako Gobernua	Proiektuetarako ekarpena	Saldoa
Langileak	1.437.389			
Funtzionamendua	384.122			
Navarrabiomedek ordaindutakoak, guztira	1.821.511	985.000	299.105	-537.406
Funtzionamendua. O-NOZek ordaindutakoak	142.675	142.675		0
Guztira	1.964.186	1.127.675	299.105	-537.406

Ikusten da 2015ean egiturarako finantzaketa ez dela nahikoa izan gastu horiei aurre egiteko.

11.a) 2012-2015 aldian, Osasun Departamentuak honako gastu-zenbatekoak izan ditu osasun ikerketaren arloa dela eta:

Kontzeptua	Zenbatekoa (milioiak)	Ehunekoa
Departamentuaren 2012-2015 aldiko gastuak, guztira	3.710	
Ikerketarekin lotutako programak*	12,9	0,35
Berezko ikerketa	4,9	0,13

*Zentroaren eraikuntza kontuan hartu gabe

Gainera, kontuan hartu beharra dago Industria Departamentuaren Plan Teknologikoaren zenbateko batzuk osasun-ikerketarakoak izan daitezkeela. Plan Teknologikoaren guztizko gastua 83,3 milioikoa da aipatutako aldian. Miguel Servet Fundazioak 99.205 euro jaso ditu 2012-2015 aldian.

Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioaren jarduera

12.a) Bere jarduera egiteko, 2015ean, Fundazioak lanaldi osoko 108 eta 66 langile baliokide bitarte izan ditu.

Abenduaren 31n honako hauek ziren fundazioan lan egiten zuten pertsonak:

Kontzeptua	Pertsona-kopurua
Zuzendaritza	2
Administrazioa, proiektuen kudeaketa, metodologia, komunikazioa, plataformak eta ikertzaile berekiak	40
Egituraren guztizkoa, honaino	42
Proiektu jakin batzuetarako ikertzaileak eta bestelako kontratatatuak, proiektu hauen bidez finantzatuak	33
Guztira	75

Gainera, fundazioaren esparruan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntzako langile batzuek egiten dute lan, zeinek ikerketa-proiektuak egiten baitituzte fundaziokoak izan gabe: 256 inguru ziren arduraldi-maila desberdinekin.

2009tik 2015era, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zen Ikerketa Biomedikorako Zentroari atxikitako langileak kontuan hartu gabe, Miguel Servet fundazioan urtean zehar lan egiten zuten pertsonen batez bestekoa 11,6koa izatetik 65,8koa izatera pasa da, eta jarduerarako diru-sarrerak, berriz, 0,8 milioi-koak izatetik 3,6 milioi-koak izatera; horrek adierazten digu fundazioaren jarduerak gora egin duela.

13.a) 2012tik 2015era, ikerketa-proiektuetarako kobratutako diru-sarrerek honako jatorri hau zeukaten:

Finantzaizailea	Diru-sarrerak	Proiektu kopurua	Proiektu bakoitzaren batez besteko zenbatekoa
Estatua	2.503.706	29	86.335
Europa	448.125	3	149.375
Nafarroako Gobernua	431.335	12	35.945
Bestelakoak	411.999	14	29.428
Orokorra, guztira	3.795.165	58	65.434

Zenbateko horretatik, Carlos III.a Institutuak 2.070.071 euro jarri ditu; hau da, ehuneko 55.

14.a) Alde handia dago 58 ikerketa-proiektuen diru-zenbatekoetan, 4.235 eurotik hasi eta 358.000 eura bitartekoak baitira; batez bestekoa 65.434 eurokoa da.

15.a) Ikerketa arloen arabera, minbiziak, 20 proiektuekin, eta kardiologiak, 5 proiektuekin, zenbatekoaren ehuneko 51 egiten dute.

16.a) Ikertzaile nagusiaren jatorrizko zentroari erreparatuta, ikerketarako lortutako zenbatekoaren ehuneko 54 Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioko ikertzaileek lortu dute: 2 milioi euro.

17.a) Saiakuntza klinikoei erreparatuta, 2012-2015 aldian 614 saiakuntza egin dira, eta guztira 2,4 milioi euroko kostua izan dute. Hematologia-zerbitzukoek, 178 saiakuntzarekin, eta onkologia-zerbitzukoek, 163 saiakuntzarekin, zenbatekoaren ehuneko 60 egiten dute.

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, azken urteetan ikusi dugu Nafarroako Gobernuak osasun-ikerketaren aldeko apustua egin duela, Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioaren bitartez, zeinak bere jardura eta aurrekontuak handitu baititu. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago kopururik handiena erai-kina egitera bideratu dela.

Osasun Departamentuak hertsiki osasun arloko ikerketara bideratutako aurrekontua departamentuaren guztizko gastuen ehuneko 0,13 egiten du 2012-2015 aldian.

Nafarroak ez du Carlos III.a Osasun Institutuak ziurtatutako osasun ikerketarako instituturik, eta exijitzen diren baldintzak betetzeko zailtasunak direla eta, erabaki da hori lortzeko lankidetzaren publiko-pribatura jotzea, IdiSNA berrabiatuz. Institutu horretan, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitateak dihardute lankidetzan, eta espero da Nafarroako Unibertsitate Publikoa ere sartzea. IdiSNAk ziurtagiria eskatu du, baina txosten hau idazteko datan oraindik ere ez zaio eman.

Egindako lanaren ondorioz, honako hau gomendatzen dugu:

- *Navarrabiomedek egiten duen osasun ikerketa publikorako plan estrategiko bat egitea, zeinak, besteak beste, ikerketaren helburuak, ikerketaren eredia eta zertarakoa, eredu horretarako behar den egitura finkoa eta haren finantzaketa ezarriko baititu.*

- *Plan estrategikoa egitean, beste laguntza-arlo batzuekin batera, kontuan hartu beharra dago osasun publikoaren eta oinarriko osasun laguntzaren arloetan ikertzeko aukera eta komenigarritasuna, bai eta, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinatutako hitzarmenaren ondoren, arlo teknologikoetan ere, ingeniartza-eskolarekiko koordinazioari esker.*

- *Plan estrategikoak jaso beharra dauka Fundazioan jatorri desberdinetako langileak lan egiten dutela (Fundaziokoak, NUPekoak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntzako langileak, egiturako edo proiektuetako langileak, IdiSNAkoak eta abar), eta lan-baldintza desberdinak dituztela; hori dela eta, ahal den neurrian, alderdi horiek arautu behar dira.*
- *Ikerketak legegintzaldi politikoek izaten duten iraupenaz haratago doazen epeak behar ditu; hori dela eta, komenigarria izanen litzateke metodo batzuk ezartzea ikerlanen egonkortasuna bermatuko dutenak ikerketa-erritmoei egokitutako planekin.*
- *IdiSNAren erregulazioa osatzea, batez ere gai administratiboei, ziurtatzerako prozesua amaitzeari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren integrazioari dagokienez.*
- *Behar diren jarduketak egitea Navarrabiomed Osasun Departamentuaren multzoan sar dadin espezialitateetako eta oinarrizko osasun laguntzako langileen lanean laguntzen duen eta lan horiosatzen duen "zerbitzu" gisa.*
- *Aztertzea ea osasun langileen kasuan zuzen aplikatzen ari ote diren ikerketarako estimulu edo pizgarriak, lanbide-karrera edo ordainsariak bezalako enraginetarako, zeren eta, esate baterako, araudiak ez baitu aukerarik ematen ikerketa-lanengatik osagarriak jasotzeko, baina bai saiakuntza klinikoak egiteagatik.*
- *Oro har, ulertzen dugu ezen, bai ingurumen-arrazoiengatik, bai etorkizuneko mantentze-kostuei begira, kalifikazio energetikoari dagokiona kontuan hartu beharreko faktore gisa aintzatetsi behar dela Administrazioak eraikin berriak egiten dituenean.*

V. EGINDAKO LANAREN AZTERKETA

Ondoren, egindako lanaren azterketa xehakatu aurkeztuko dugu, aurreko ondorioak zabaldu eta garatze aldera.

V.1. OSASUN IKERKETA PUBLIKOAREN ANTOLAKETA

Ondoren, iruzkin batzuk eginen ditugu, azaltzeko nola antolatu den osasun ikerketa publikoa Nafarroan.

V.1.1. Alderdi orokorrak

2007an, Nafarroako Foru Komunitaterako Ikerketa Plan Estrategiko bat egin zen. Izena gorabehera, Osasun Departamentuan zentratuta dago plana.

MODERNA Planak, zeina 2010ean onetsi baitzen, osasunaren ekonomia jasotzen zuen oinarrizko ardatzetako baten gisara; eta Nafarroa 2012 Planean egin beharreko lanen artean jaso zen osasun ikerketarako zentroaren eraikina egitea.

2006-2012 urteetarako Osasun Planak osasun ikerketari buruzko aipamen batzuk baditu.

2013an, O-NOZen Ikerketa Sustatzeko Programa egin zen. Haren azterketan, honakoak ageri dira aurkitutako arazo nagusi gisa:

“O-NOZen barruan ikerketari ematen zaion balio eskasa; gure osasun zerbitzuak ikerketarako daukan gaitasun txikia; O-NOZen beraren profesionaletan eskusiboki zentratutako deialdirik ez egotea; kanpoko ingurune ez oso aldekoa (ikerketarako institutu ziurtaturik ez edukitzea, unibertsitatearekiko aliantzarik ez egotea eta Nafarroako Ospitalegunek unibertsitate-izaerarik ez edukitzea), bai eta ikerketa-xedeetarako informazioa lortzeko zailtasunak ere (datu baseak izengabe bihurtzeko (sic) eta haien integrazteko zailtasunak).

Industria Departamentuak berak plan teknologikoak egin ditu, baina gaur arte ez du osasun sektore publikoa lehenetsi.

Horiek guztiak osasun ikerketa publikoari buruzko erreferentziak, modu batera edo bestera, egiten dituzten dokumentuak dira.

Gaur egun, Moderna Plana, zeina Moderna RIS3 izenekoak ordeztu baitu, birplanteatzen ari da, Ikerketarako Plan Zientifiko bat egiten ari da, eta 2016ko martxoan ikerketa biosanitarioari buruzko hitzarmen bat sinatu dute Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Garapen Ekonomikorako Departamentuak eta Osasun Departamentuak.

2014-2020 urteetarako Osasun Planak, zeinak 2006-2012 urteetarakoa ordeztzen baitu, ikerketara bideratu nahi diren diru-zenbatekoak zehazten ditu.

Hartara, honako hauek dira 2014-2020 aldirako prestakuntza- eta ikerketa-aurreikuspenak:

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	Guztira
Prestakuntza	160.000	450.000	580.000	660.000	660.000	660.000	660.000	3.830.000
Ikerketaren eta Berrikuntzaren arloko deialdia	545.000	619.000	795.500	893.000	893.000	893.000	893.000	5.531.500

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, Planak ikerketaren eta berrikuntzaren arlorako dauden beharriak direla-eta egiten duen kalkulua guztira 5,5 milioi eurokoa da 2014-2020 aldirako, eta urteko zenbatekoan goranzko bilakaera dauka.

Zenbateko horiek ez dute biltzen Miguel Servet Fundazioarekiko hitzarmenari dagokiona.

Estatuan, osasun ikerketarako erreferentziako zentroa Carlos III.a Osasun Institutua da, zeinak ikerketa zentroezi ziurtagiria eman eta ikerketarako laguntzak banatzen baititu. Ziurtatutako zentroak dira ikerketarako diru-laguntzak eskuratzeko erraztasun handienak dituztenak.

Gaur egun, 29 ikerketa-institutuk dute ziurtagiria, eta sortu dira Osasun Sistema Nazionaleko irakaskuntza- eta ikerketa-ospitaleak unibertsitateekin eta bestelako ikerketa-zentro publiko eta pribatuekin elkartetik.

Horrekin, ospitalea indartu nahi da ikerketarako zentro gisa, helburu nagusitzat hartuta kalitate handieneko ikerketa traslazonala egitea, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu sanitarioen eta osasun publikoko

zerbitzuen oinarritzko ikerketaren eta ikerketa klinikoaren eta epidemiologikoaren emaitzak eramanez Espainiako Zientzia eta Teknologia Sistemara, gaixoarengana eta gizartera, oro har.

Autonomia erkidegoa da institutuaren proiektua baliozkotzeko eskumena duena.

Ikerketa zentro baten ziurtatzeak egiaztapen- eta konprobaketa-prozesu zorrotza eskatzen du, non, besteak beste, aipatu digutenaren arabera, exijitzen baita, barne-irizpideak tarteko, parte har dezatela ospitale-laguntza ez ezik oinarritzko osasun laguntza ere baduten osasun zentroek eta unibertsitateek, eta horiek gaitasun zientifikoko maila jakin bat edukitzea.

V.1.2. Miguel Servet Navarrabiomed Fundazioa

II.2 atalean jada laburki azaldu ditugu Miguel Servet Fundazioaren eta Ikerketa Biosanitariorako Zentroaren (IBZ) sorrera eta Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioa osatzeko haien bategitea. Fundazio berria osasun arloko prestakuntzan eta ikerketan jarduteaz arduratzen da. V.2.1 atalean, 2015eko ekitaldiari buruzko kopuruak ikus daitezke, eta eranskinean, berriz, balantzearen eta emaitzen kontuaren zenbaterako bilakaera.

Osasunaren arloko ikerketaren aldeko apustuarekin bat eginez, hain zuzen ere aurreko atalean aipatutakoaren ondorioz, ikusten da ikerketarako kontusailek gora egin dutela, nahiz eta gehienak eraikina egiteko eta haren ekipamendurako erabili diren.

Hartara, zentroaren eraikuntzak, 21,1 milioiko gastua ekarri du (ikus V.3.2 atala), eta 2012-2015 aldian, Osasun Departamentuaren programetatik, zabal hartuta, 12,9 milioi ikerketara eta prestakuntzara bideratu dira; hertsiki ikerketan zentratzen bagara, zenbaterakoak 4,9 milioi egiten du (ikus V.3.3.1 atala). Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharra dago ikerketa-proiektuak finantzatzen direla, oro har, horretarako funtsak hainbat tokitatik eta deialditatik hartuz, gehienak Nafarroako Gobernuaz kanpokoak.

Prozesu konplexu horretarako, ez da inongo berariazko plan estrategikorik egin, Navarrabiomed Fundazioa ezarri eta garatzeari buruzkorik. Horrek berarekin ekarri du honako hauek gertatzea haren ezarpean:

- Ez dira ikerketa-arloak finkatu beharrianei eta aukerei buruzko azterlanen arabera; izan ere, bertan funtsak lortzen zituzten ikertzaileak integratzen joan dira, alde batera utzita haiek diharduten arloetako asko bat datozela Nafarroako ikerketaren arloan daukan interes orokorrekin.
- Eraikinak hasiera batetik ikerketarako gehiegizkoak diren espazio batzuk sortu ditu, eta espazio horiek, gero, beste xede batzuetarako hartu dira. Gaur egun, espazioaren ehuneko 22 laborategiak hartzen du. Horri dagokionez, eta Fundazioan aipatu diguten bezala, eraikinaren egungo okupazioak zaildu egiten du ikerketa-zentroaren epe laburreko hazkundera.
- Ikerketarako oinarritzko egiturarik ez da definitu. Gainera, modu orokorrean finantzatu beharko litzaiteke ikerketa, eta ez proiektuetako funtsekin.
- Proiektuen eta kontabilitatearen kudeaketarako tresna, FUNDANET izenekoa, 2009an ezarri zen, baina ez da erabiltzen daukan potentzial guztia ustiatu ahal izateko moduan.

Proiektuen Kudeaketarako Unitateari, Biobankuari*, Ikerketa Klinikoaren Kudeaketarako Unitateari, Proteomikari** eta Komunikazio eta Diseinu Unitateari dagozkien prozedurak UNE-EN-ISO 9001:2008 arauaren arabera ziurtatuta daude.

* Biobankua zerbitzu-plataforma bat da, zeinaren helburua baita ikerketa biomedikoan laguntzea, erkidego zientifikoari giza lagin biologikoak hornituz.

** Navarrabiomed Fundazioaren plataforma teknologikoa, zeinaren jarduera nagusia baita ehunetatik, zelulen kultiboetatik eta jariakin biologikoetatik proteinak ateratzea, haiek aztertze aldera.



Biobankuko hozkailuak, non ehunak 80 gradutik beherako tenperaturan gordetzen baitira.

V.1.3. Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua (IdiSNA)

Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuak (IdiSNA), zeinaren funtsezko datuak II.3 atalean aurkeztu baitira, Nafarroako osasun- eta unibertsitate-arloetako erakundeen —publikoen zein pribatuen— arteko lankidetzaren eredu bat da.

2005eko uztailaren 4an, Nafarroako Gobernuak institutua sortzeko erabakia onetsi zuen. Erabaki hori 2005eko uztailaren 22an sinatu zuten Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitateko ordezkariak, nahiz eta proiektua ez zen gauzatu ahal izan.

2009an, Carlos III.a Institutuak beste bultzada bat eman zion ikerketa institutuen eraketa sustatzeko bere estrategiari, eta urte horretako apirilean Nafarroan institutua egiazki sortzeko ekimenari berrekin ziztaion.

2010eko otsailaren 1ean, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua sortzeko buruzko Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko 2005eko uztailaren 22ko hitzarmena aldatzea. Azkenik, ordea, hitzarmen hori ez zen sinatu, fundazio bat egitea hautatu zelako.

2010eko azaroaren 5ean, Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua Fundazioak Patronatua eratu eta lehenengo bilera egin zen. Hartan, haren estatutuak onetsi eta Nafarroako Fundazioen Erregistroan jaso zen. II.3 atalean, aipatu dira hasierako ekarpena zein entitatek egin zuten, eta horien artean ez dago ez Nafarroako Gobernuak, ez eta Nafarroako Unibertsitatea ere.

IdiSNAk 2015eko otsailean bere plan estrategikoa onetsi zuen, eta martxoan Integrazio Plana sinatu zuten Osasun Departamentuak, Nafarroako Unibertsitateak-Nafarroako Unibertsitate Klinikak, Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua Fundazioak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak, Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioak (FIMA) eta Miguel Servet Fundazioak. Egun berean, esku-hartzaile berdinek IdiSNA garatzeko Integrazio Ituna sinatu zuten.

Carlos III.a Institutuari ziurtagiria eskatu zaio, eta horrek alde aurretiko auditoria egin du; horren ondorioetan, honako hauek aipatzen dira:

"Osasun ikerketarako institutu batean integartzeko lankidetzaren publiko-pribatuaren oinarriak ezarri dira eta nahiko sendoak dira. Egiaztatu da epe laburrean integrazio erreala gauzatzeko hainbat formula zabaldu direla, eta horiek eragina dute lan prozeduretan, lantaldeetan, ekipamenduan eta taldeen arteko lankidetzan. Halaber, IdiSNA abian jartzeak eraldaketa bat ekarri du BAME medikuen artean ikerketa sustatzeari, zerbitzu klinikoari eta osasun laguntzaren hobekuntzari dagokienean.

Integrazio horretan egin diren aurrerapen zalantzagabeak gorabehera, eta lankidetzaren hitzarmena 2015eko martxoaren 23an sinatu zenez, hainbat gai badaude txosten honetan azaldutakoetatik ibilbide luzeagoa behar dutenak behi betiko lanen ikuspegiak finkatzeari dagokionez. Aurretiko bisitan, egiaztatu ahal izan dira talde eta erakundeen lankidetzaren eraldatzeko egin diren ahaleginak, IdiSNAn proiektu bakarrekin eta helburu komunekin integratzeko. Hala eta guztiz ere, IdiSNak hainbat errealitate desberdinetatik —aurretiko bisitan islatu dira— abiatzen diren erakundeak batean biltzen ditu, honakoei dagokienez: masa kritikoa, prozedurak, zerbitzu klinikoetako parte-hartzerako eta laguntzarako organismoak, hazten ari diren taldeak edo lehentasunak eta baliabideak ikerketa traslazonalari esleitzeko lehentasunak. Gomendagarria izanen litzateke Nafarroako Ospitalegunean ikerkuntzarako babesa eta ikuspegi indartzea, IdiSNaren iraunkortasuna bermatzeko.

Hori dela eta, jo beharra dago dokumentuak direla-eta muga batzuk badaudela, eta muga horiei konponbidea bilatu behar zaiela ziurtatzea amaitu baino lehen; horrek, halere, ez da aldeztu aurretik muga esanguratsurik ezarriko, geroratu beharrekorik, kreditatze-eskaeraren prozedurari dagokionez."

IdiSNaren kontuei buruzko informaziotik ondorioztatzen da ezen, 2015ean, 2,3 milioi eskuratu direla 2016tik 2020ra bitartean langileak kontratatze eta garatzekoak diren ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzetatik. Hala eta guztiz ere, behin betiko auditoria egiteko dago, eta aurre-auditorian ezarritakoaren arabera ez da zail gertatuko ziurtatzea lortu ahal izatea.

Gure iritziz, nahiz eta aldean artean sinatutako akordioetan partaidetzak eta emaitzen jabetza erregulatuta dauden, laburbil daiteke esanez ezen, oro har, ikerlanak IdiSNan parte hartzen duten zentroetan egiten direla eta emaitzak zentro bakoitzak egindako ekarpenaren proportzioan esleitu direla; halere, finkatzeko dago zein izanen den, ikuspuntu administratibotik, Miguel Servet Fundazioaren eta Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioaren egitekoa proiektuak IdiSNaren bitartez finantzatzen diren kasuetan.

Jada aipatutakoaren osagarri, gauzatzeke gelditzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoa IdiSNan sartzea.

Laburbilduz, esan dezakegu Osasun Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko lankidetzaren dela Nafarroako osasun ikerketarako zentro ziurtatu bat edukitzea bermatzeko modua, hartara Carlos III.a zentroak osasun ikerketarako ematen dituen funtsak errazago eskuratu ahal izateko.

Zehazteko gelditu da nola zehaztuko diren ikuspuntu administratibotik IdiSNak kudeatzen dituen proiektuak, eta ikuspuntu funtzionaletik nola koordinatuko diren, aurre-auditorian aipatutakoaren arabera, errealitate desberdinetatik abiatzen diren eta ikerketaren helburuetan interes desberdinak izan ditzaketen erakundeak, zeren eta, printzipioz, Navarrabiomedek ez baitu plan estrategikorik, eta Departamentuak, berriz, interesa izan baitezake osasun publikoko alderdiak garatzeko, eta Unibertsitateak, azkenik, interes handiagoa eduki baitezake osasun aplikatua dela eta. Horri dagokionez, gogorarazi beharra dago (ikus II.3 atala) zein diren komite zientifikoak ikerketaren inguruan dauzkan ginkizunak.

V.2. MIGUEL SERVET FUNDAZIOAREN KONTU OROKORRAK

V.2.1. Berrikuspen finantzarioa

Miguel Servet Fundazioaren kontuak kanpoko enpresa batek auditatzen ditu, eta enpresa horrek urtero aldeko iritzia eman izan du.

Erantsitako tauletan 2015eko balantzea eta emaitzen kontuan aurkezten ditugu, bai eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa ere (eranskinean, 2009-2015 aldiko balantzeak eta emaitzen kontuak jaso ditugu).

Balantzea

Aktiboa	2014	2015
Aktibo ez-arrunta	546.658	865.442
Ibilgetu ukiezina	25.874	28.446
Ibilgetu materiala	520.784	836.996
Aktibo arrunta	5.752.668	5.055.675
Erabiltzaileak eta berezko jardueraren beste zordun batzuk	2.090.418	1.495.345
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	1.305.504	991.160
Epe laburreko finantza-inbertsioak	1.509.348	750.952
Aldizkatzeak	133	133
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	847.265	1.818.085
Aktiboa, guztira	6.299.326	5.921.117

Ondare garbia eta pasiboa	2014	2015
Ondare garbia	1.540.498	1.190.447
Funts berekiak	419.480	(167.131)
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.121.018	1.357.578
Pasibo arrunta	4.758.828	4.730.670
Epe laburreko hornikuntza	5.848	
Epe laburreko zorrak	1.927.184	2.018.750
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	600.619	345.075
Aldizkatzeak	2.225.177	2.366.845
Pasiboa, guztira	6.299.326	5.921.117

Emaizten kontua

Emaizten kontua	2014	2015
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	3.330.779	3.593.396
Sustapen, babesle eta laguntzaileak direla eta izaniko diru-sarrerak	948.583	820.461
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak	2.382.196	2.772.935
Laguntzak eta beste direla-eta izandako gastuak	-	-589.967
Hornidurak	-279.715	-342.384
Jardueraren bestelako diru-sarrerak	173.708	297.733
Langile-gastuak	-2.469.508	-2.500.112
Jardueraren bestelako gastuak	-711.452	-831.340
Ibilgetuaren amortizazioa	-68.139	-124.751
Ekitaldiaren soberakinari transferitutako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	-	-
Ibilgetua besterentzetik heldu diren narriadura eta emaitzak	-	-
Jardueraren soberakina	-24.327	-497.425
Diru-sarrera finantzarioak	29.547	10.774
Finantza-gastuak	-	-56
Finantza-eragiketen soberakina	29.547	10.718
Zergak ordaindu aurreko soberakina	5.220	-486.707

Ikus daitekeen bezala, balantzean ez da Nafarroako Gobernuak egindako eraikina sartu.

Ondare garbia positiboa bada ere, funts berekiak negatiboak dira 2015ean, ekitaldiko emaitzaren ondorioz eta aurreko urteetako emaitzetan egindako doikuntzen ondorioz. Egoera hori zuzendu egin beharko litzateke.

2015ean emaitza negatibo esanguratsua gertatu da, eta emaitza horrek aurreko urteetako joera aldatu du, hurrengo taulatik ondoriozta daitekeen bezala:

Soberakina	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Jardueratik heldutakoa	13.803	102.959	41.754	70.955	-54.360	-24.327	-497.425
Finantza-eragiketetatik heldutakoa	17.606	10.252	36.140	48.287	67.931	29.547	10.718
Zergak ordaindu aurretik	31.409	113.535	77.894	119.242	13.571	5.220	-486.707

2015eko emaitza negatiboa funtsean zor zaio ekitaldiko gastu ez-hautagarrien, hau da, diru-laguntzen, dohaintzen edo jasotako legatuen bitartez finantzatu gabekoen, zenbatekoa (790.785 euro) handiagoa izateari jardueraren beste diru-sarrera iturri batzuetatik (overheads) heldutako zenbatekoak, Fundazioak sortutakoak, baino.

Aurreko ekitaldietan, Europako Gizarte Funtsetik finantzaketa bat jasotzen zen, zeina egiturazko gastuetara bideratzen baitzen, eta 2015eko aurrekontuetakoa, berriz, ez da jaso, eta horixe da emaitzaren arrazoi nagusia.

"Overheads" deitutako diru-sarrerak hainbat proiektutatik Fundazioaren gastu orokorretara egiten diren ekarpenei dagozkie. Gehienetan, ehuneko horiek deialdietako oinarrietan aipatuta datoz. Hartara, honako hauek izan daitezke emaitza negatiboaren arrazoiak:

2016eko gastu ez-hautagarri edo ez-finantzatuak	-790.785
Jardueraren bestelako diru-sarrerak (Overheads)	299.105
Diru-sarrera finantzarioak	10.774
Emaitza negatiboa, 2015	-486.707

Erabilitako kontabilitate-sistemak emaitzen arabera diru-laguntza jasotzen du, proiektuak egiten diren neurrian, eta, deialdien arabera, aukera ematen du diruzaintzaz baliatzeko, nahiz eta hainbat proiektutarako hitzartua egon.

Hori dela eta, kanpoko auditoreek emandako datuak oinarri hartuta, baliagarritasunei buruzko egoera-orri bat landu dugu, entitate publikoetan diruzaintza-gerakinaren egoera-orria deitzen denaren antzekoa; honako hau da, hain zuzen:

	Kontzeptua	2014/12/31	2015/12/31
	Erabiltzaileak eta berezko jardueraren beste zordun batzuk	2.090.418	1.495.345
	Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	1.305.504	991.160
a	Kobratzeko dauden eskubideak	3.395.922	2.486.505
	Aldi baterako finantza-inbertsioak	1.509.348	750.952
	Bankuak	847.265	1.818.085
b	Diruzaintza	2.356.613	2.569.037
a+b	Guztira	5.752.535	5.055.542
	Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	-600.619	-345.075
	Epe laburreko zorrak	-76.254	-88.9712
c	Ordaintzeko dauden betebeharrak	-676.873	-434.047
1: a+b+c	Baliabideak, guztira	5.075.661	4.621.495
2	Ikerketarako diru-laguntzetarako hitzartutako zenbatekoak eta diru-sarrerak, guztira	4.650.466	4.788.760
1-2	Erabilgarri dauden baliabideak	425.195	-167.264

Ikus daitekeen bezala, 2015eko defizitak bere isla dauka egoera-orri horretan, zeinak adierazten baitigu ezen, ekitaldiaren amaieran dagoen diruzaintza gorabehera, saldoa negatiboa izanen lukeela baldin eta hitzartutako finantzaketa ordainduko balitz eta gauzatzeke dagoen guztia kobratuko eta ordainduko balitz; horrek aditzera ematen du 2015ean ikerketara bideratutako diruzaintza aurreratu egin dela egiturazko gastuak finantzatzeko, baita proiektuei egoztekoak zaizkien zeharkako kostuen gainetik ere.

V.2.2. Legezketasunaren azterketa

Fundazioaren jarduerari buruzko berrikuspen bat egin dugu, legezketasunaren ikuspuntutik.

V.2.2.1. Langileak

Fundazioan hainbat jatorritako langileak daude (administraziokoak, Fundazioaren egiturako ikertzaileak edo laguntzako langileak, proiektuetarako kontratatutakoak eta ikerketa-lanetan diharduten laguntzaileak), eta lan baldintza eta lanaldi desberdinak dituzte.

Aplikaturako hitzarmena bulego eta lantokietakoa da, langile guztien kasuan.

Nafarroan ez dago lege agindurik zehazten duenik zein araudi bete behar duten fundazio publikoek langileak kontratatzeke. Araudi orokorra kontuan hartuta, Miguel Servet Fundazioak, fundazio publiko bat denez, berdintasun, merezimendu eta gaitasuneko oinarriko printzipioak bete behar ditu langileak kontratatzeke garaian. Kontratazio-prozesuak web-orrian argitaratzen dira, baina ez da kontratazioarako prozedurarik ezarri.

Hona gure gomendioak:

- *Aztertzea zein den Fundazioaren kudeaketarako hitzarmen egokiena, kontuan izanda lan mota desberdinak, lan baldintzak eta langileek jatorria; eta hitzarmen hori langile guztiei aplikatzeko aukera jasotzea.*

- *Idatzizko prozedura batzuk ezartzea, Patronatuak onetsiak, non hainbat arlotako betebeharrak jasoko baitira: publizitatea, hautapen-organoen osaketa, hautatze-sistemak eta abar. Ildo bereko iritzia eman zuen Arartekoak 2014ko martxoaren 25eko ebazpenean.*

V.2.2.2. Kontratazioa

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, bete egiten dela kontratazioaren arloko araudia.

Hala eta guztiz ere, ikusi dugu ez dela beti aintzat hartzen kontratuaren zenbatekoa eta haren balizko luzapenak kontratazio-prozedura ezartzeko garaian, eta batzuetan batera gertatzen direla hornitzaile baten eskuratze bat baino gehiago, eta beharrezkoa litzatekeela kontratazio-prozedura ezartzea. Horri dagokionez, kontuan hartu beharra dago zailtasun batzuk badaudela hainbat ikerketa-proiekturen beharren bolu-mena alde aurretik ezagutzeko.

Hona gure gomendioak:

- *Kasuko kontratazio prozedura izapidetzea legeak ezarritako mugak gainditzen dituzten ohiko zerbitzuetan.*
- *Bestelako zerbitzu eta material suntsigarriko horniduretan, aztertzea kasuko kontratazio-prozedura izapide daitekeen, haietan urteko gastua aurreikusten eta zentralizatzen zaila baita eta, gainera, fundazio-etarako araudian ezarritako muga, 15.000 eurokoa, gainditzen baita berez.*

V.3. DATU EKONOMIKOAK

V.3.1. Miguel Servet Fundazioaren funtzionamendu gastuen bilakaera

Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioaren jarduera dagokion esparruan kokatzeko, ondoren aurkeztu dugu Ikerketa Biomedikorako Zentroaren (IBZ) eta Fundazioaren funtzionamendu-gastuen bilakaera —2012ra arte bereizita ageri dira eta 2013tik aurrera, berriz, Fundazioan bateratu ziren—:

IBZ+Fundazioa (gastua)	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Langile-gastuak	720.355	1.102.713	1.514.565	1.511.899	2.113.892	2.469.508	2.500.112
Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastuak	541.790	650.235	998.521	1.141.513	973.511	992.370	1.173.761
Guztira	1.262.145	1.752.948	2.513.086	2.653.411	3.087.403	3.461.878	3.673.873

Datu horietatik ondoriozta daitekeenez, gastuek gora egin dute, eta haien inflexio puntuak bat datoz osasunaren arloko ikerketa indartzeko erabakiarekin —2010. eta 2011. urteak—, bai eta IBZk eta Fundazioak 2013an bat egitearekin ere.

Taulako datuetatik ondoriozta daitekeen bezala, 2009tik 2015era gastuak ehuneko 191 egin du gora, 1,3 milioikoa izatetik 3,7 milioikoa izatera pasa baita.

V.3.2. Inbertsioetan egindako gastua

Kontusail garrantzitsuena eraikina egiteari eta haren ekipamenduari dagokiena da. Inbertsio hori aztertuta dago jada Kontuen Ganberak egindako "Osasun azpiegiturak, 2008-2014" izeneko txostenean, 2015eko apirilaren 154an argitaratutakoan. Haren alderdi aipagarrienak berretsiko ditugu azpiegitura honi dagokionez.

2007ko azaroan, Ikerketa Biomedikorako Zentrorako, biltegi nagusiaren eta liburutegiaren Plan Funtzionala onetsi zen.

2008ko proiektuan guztira jasotako azalera 9.943 m²-koa zen. Azalera erabilgarriaren ehuneko 69, es-taldurak kenduta, Ikerketa Biomedikorako Zentroari dagozkio; ehuneko 24, biltegi nagusiari, eta ehuneko zazpi, azkenik, liburutegiari.

Azpiegiturak 21,15 milioi euroko kostua izan zuen, honako kontzeptuetan xehakatur:

Kontzeptua	Lizitazio prezioa	Lizitazio prezioa	Adjudi-kazio urtea	Aldaketak	Aldaketaren urtea	Betetako gastua
Laguntza teknikoa			2008			140.000
Proiektua	495.000	346.500	2008	51.975	2008	476.724
Obra-zuzendaritza	398.475			5.585		404.060
Obra	22.410.000	16.350.336	2009	842.551	2011	18.110.162
Biltegiaren behin-behineko kokapena						162.408
Beste gastu batzuk						18.517
Ekipamendua						1.834.209
Inbertsioa, guztira						21.146.080

Ikerketa Biomedikorako Zentroaren ekipamendua —zeinak 1.783.840 euro egiten baitu, hau da, inbertitutako ia guztia— 2012tik 2014ra erosi zuten Osasun Departamentuak eta O-NOZek, eta 2014tik aurrera, berriz, Miguel Servet Fundazioaren bitartez erosi zen zuzenean. Fundazio, hori, berriz, Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik eginiko kapital-transferentzien bitartez finantzatzen da.

Eraikina 2011ko azaroan amaitu zen, eta 2013ko martxoan jarri zen funtzionamenduan, laborategi bateratua lehenengo solairuan eta beheko solairuko zati batean ezarrita.

Finantzaketarako 375.284 euroko eta 2.329.768 euroko aurrerakinak jaso ziren 2007an eta 2008an, hurrenez hurren, Zientzia eta Berrikuntza Ministeriotik, bai eta FEDER erakundearen 7.807.299 euroko diru-laguntza bat ere, non aipatzen baita ikerketarena izanen duela erabilera eskusibo. O-NOZek 2017ko martxoan justifikatu beharko du diru-laguntza aplikatu duela eman zitzaion xederako.

V.3.3. Osasun ikerketara bideratutako aurrekontu-funtsak

2012tik aurrerako datuak aurkezten ditugu, zeren eta urte horretan amaitu baitzen eraikina, eta orduan batera bildu baitziren IBZ eta Fundazioa. Osasun ikerketaren finantzaketa bai Osasun Departamentutik bai Industria Departamentutik heldu da (beren ondoz ondoko izen-aldaketekin), I+G+b sustatzeko kontusailen bitartez.

V.3.3.1. Osasun Departamentua

"Osasun arloko ikerketa, berrikuntza eta prestakuntza" izeneko 512 aurrekontu-programak jasotzen ditu Osasun Departamentuak xede hauetara bideratzen dituen gastuak.

Gainera, 2012an, Fundazioarekiko hitzarmena "Osasun zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak" izeneko 500. programan kontabilizatu zen; programa horrek, gainera, hurrengo urteetan Hezkuntza Ministerioak IBZrako emandako maileguaren amortizazio-kuotak jasotzen dira; aurreko urteetan, berriz, 540 programan kontabilizatzen ziren.

Programa horiek gainera, kontabilitatearen arabera, gastuen honako xehakatzeara jasotzen dute ikerketa —publikoa zein pribatua— dela eta:

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	Orokorra, guztira
512000 Zuzendaritza eta Gizarte Segurantzza	426.343	1.856.863	1.808.826	1.747.977	5.840.009
512001 Prestakuntza	703.567	404.890	793.415	700.349	2.602.220
512002 Ikerketa	643.580	589.307	858.318	1.045.383	3.136.588
512003 Berrikuntza eta azterlanak	77.445	84.952	124.135	110.351	396.884
512 programa, guztira	1.850.935	2.936.013	3.584.694	3.604.060	11.975.701
500 Miguel Servet Fundazioaren hitzarmena	370.000				370.000
500 Ikerketa Biomedikorako Zentroa abian jartzea	398.606				398.606
500 eta 540 Maileguaren amortizazioa	31.273	31.273	31.273	31.273	125.092
Ikerketa-programak 500 eta 540	799.879	31.273	31.273	31.273	893.698
Guztira	2.650.814	2.967.286	3.615.967	3.635.333	12.869.399
Osasun Departamentua, guztira	941.354.038	891.752.400	917.508.973	959.836.984	3.710.452.396

12,9 milioi horien erabilpenaren ideia zehatzago bat lortuko dugu baldin eta haien erabilerari erreparatzen badiogu, honako taula honetatik ondorioztatzen den bezala:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Partziala	Honaino, guztira	Zenbateko metatua
Prestakuntza	2.602.220			
Berrikuntza eta azterlanak	396.884			
Prestakuntza eta berrikuntzaren arloko honainoko guztia			2.999.104	2.999.104
Programako langile-gastuak	1.458.689			
Beste gastu batzuk	598.703			
<i>Honainoko guztia, programako langiletan eta bestetan</i>			2.057.392	5.056.496
Ikerketa proiektuak	1.722.698			
Ituna Miguel Servet Fundazioarekin	3.185.147			
<i>Ikerketaren arloaren honainoko guztizko partziala</i>		4.907.845		
Fundazioarekiko hitzarmena, IBZ abian jartzekoa	398.606			
Ikerketa zentrorako ekipamendua	1.290.927			
Ministerioaren maileguaren amortizazioa	125.092			
<i>Ekipamendua eta abian jartzea arloetako honainoko guztia</i>		1.814.625		
Informazio zientifikorako harpidetza (on line)	1.090.433	1.090.433		
Ikerketaren arloko honainoko guztia			7.812.903	12.869.399

Laburbilduz, aipa dezakegu 2012-2015 aldian "Ikerketa, berrikuntza eta osasun prestakuntza" programako 12,9 milioietatik eta osasun ikerketara bideratutako beste kopuru batzuetatik zorrozki ikerketara bideratu den diru-zenbatekoa 4,9 milioikoa dela, eta gainerakoa IBZren ekipamendurako eta zentro hori abian jartzeko, informazio zientifikoaren harpidetzak egiteko, prestakuntzarako, kudeaketarako eta abarretarako dela, aurreko taulatik ondoriozta daitekeen bezala.

2012-2015 aldian, 12,9 milioi horiek Osasun Departamentuaren gastuen ehuneko 0,35 egiten dute. Baldin eta zorrozki ikerketara bideratutako 4,9 milioiak kontuan hartzen baditugu, haien garrantzia Departamentuaren gastu guztien ehuneko 0,13koa da.

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago 1986ko Osasunari buruzko Lege Orokorrak 109. artikuluan aipatzen zuela —indargabetuta dago jada— ezen "*ikerketaren finantzaketan honako irizpide hauek hartuko direla kontuan:*

a) *Ikerketarako gutxieneko urteko aurrekontu bat ezartzea, osasunerako aurrekontu orokorren 100eko 1ekoa, zeina pixkanaka erdietsiko baita lege hau aldarrikatzen den unetik*".

V.3.3.2. Industria Departamentua (Plan Teknologikoa)

Industria Departamentuak ere ikerketarako diru-laguntzak ematen ditu, Plan Teknologikoaren bitartez. Lan honen mugei buruzko atalean aipatu den bezala, osasun arlora bideratutakoak ezartzeko berrikuspen lan oso neketsua egin beharko litzateke, zeinak txosten hau egiteko denbora gehiegi luzatuko bailuke. Hori dela eta, aldi honetan egindako gastuei buruzko taula bat aurkezten dugu, gastu horiek kontzeptuka xehakaturik.

Industriako Plan Teknologikoa

Kapitulua	Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	Guztira
1	Langileen ordainsariak	367.118	441.137	423.964	388.172	1.620.391
Guztira, 1	Langile-gastuak	367.118	441.137	423.964	388.172	1.620.391
2	Azterlanak eta lan teknikoak	114.451	96.352	26.485	87.120	324.408
	Lokomozioa eta bidaiak-gastuak	33.329	12.412	9.891	3.971	59.604
	Bestelako gastu askotarikoak	74.180	36.404	19.807	4.422	134.813
Guztira, 2	Ondasunak eta zerbitzuak erostea	221.961	145.168	56.183	95.513	518.825
4	Ikertzaileak eta teknologoak kontratatuzeko laguntzak			400.257	1.193.443	1.593.700
	Emandako bekak (unibertsitate-tituludunen prestakuntza)	33.164	33.930	19.962	25.537	112.592
	Ezagutzaren arloko zerbitzu intentsiboetarako bono teknologikoak			63.515	220.781	284.296
	Zentro teknologikoekin egindako hitzarmenak	346.656				346.656
	Giza-taldea prestatzea eta teknikarien birziklatzea	985.270	906.340			1.891.610
	CEINi egindako transferentziak	394.508			446.577	841.084
	Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioarentzako transferentziak	50.000				50.000
Guztira, 4	Transferentzia arruntak	1.809.598	940.270	483.734	1.886.337	5.119.939
7	Fundazioetarako ekarpenak			91.565		91.565
	Zentro teknologikoetarako ekarpenak			30.051	4.674.884	4.704.934
	Enpresei interesetan emandako hobaria, I+G+b proiektuetarako	18.282	3.071	252	371	21.977
	Proiektu teknologikoetarako bono teknologikoak			298.296	264.873	563.169
	Proiektu mankomunatuak.	4.796.981	2.907.473	1.838.354	2.237.478	11.780.286
	Enpresentzako diru-laguntzak, I+G+B proiektu-enganatik, patenteenganatik eta abar	10.078.331	6.784.231	4.705.668	4.534.657	26.102.887
	Lankidetzak bidezko proiektu eta jarduketetarako diru-laguntzak	1.211.551	911.591	808.684	976.291	3.908.118
	CENER-CIEMAT Fundaziorako transferentziak	3.000.000				3.000.000
	CETENA Fundaziorako transferentziak	850.000				850.000
	Nafarroako Sare Teknologikorako transferentziak	2.985.087	6.869.292	7.249.314	6.970.403	24.074.095
Guztira, 7	Kapital-transferentziak	22.940.232	17.475.659	15.022.183	19.658.957	75.097.030
9	MICINNAk parkearen sustapenerako emandako maileguaren amortizazioa	227.487	227.487	227.487	227.487	909.950
Guztira, 9	Finantza-pasiboak	227.487	227.487	227.487	227.487	909.950
Guztira		25.566.397	19.229.721	16.213.550	22.256.467	83.266.134

Egiaztatu dugu IdiSNAn parte hartzen duten entitateetatik zeinek hartu dituzten aldi honetan Industria Departamentuaren eta Osasun Departamentuaren 512. programaren bitartezko diru-laguntzak; honako hau da emaitza:

Hartzekodunak	2012	2013	2014	2015	Guztira
Plan teknologikoa			36.000	63.205	99.205
512. programa		920.147	1.380.193	1.433.139	3.733.479
Miguel Servet Fundazio Publikoa		920.147	1.416.193	1.496.344	3.832.684
Plan teknologikoa	118.832			535.383	654.214
512. programa	10.393				10.393
Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioa (1)	129.225			535.383	664.607
Plan teknologikoa	163.358	59.116	322.390	234.000	778.864
512. programa	62.094	59.779	59.094	59.779	240.745
Nafarroako Unibertsitatea	225.451	118.894	381.484	293.779	1.019.609
Guztira	354.676	1.039.041	1.797.677	2.325.505	5.516.900

(1) 2015ean, Hezkuntza Departamentuaren 260.000 euro jaso zituen, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioarekiko hitzarmen-programatik

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, hiru dira bai Osasun Departamentuaren, bai Plan Teknologikoaren funtsak jasotzen dituzten entitateak, eta funts horiek 5,5 milioi egiten dute. Hona hemen zenbateko horren jatorria:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Plan teknologikoa	1.532.283
512. programa.	3.984.617
Guztira	5.516.900

Ehuneko 69 Miguel Servet Fundazioari dagokio.

V.3.4. FIMARI egindako transferentziak

Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioa eta haren Ikerketa Mediko Aplikaturako Zentroa (CIMA), zeina pribatua baita eta Nafarroako Unibertsitateari atxikita baitago, Miguel Servet Fundazioak dauzkan helburuen antzerakoak dituen eta berarekin aldera daitekeen zentro bakarra da.

Hori dela eta, 2002-2015 aldian zentro horri Nafarroako aurrekontu orokorretatik egindako ordainketak egiaztatu ditugu. Horrek aukera ematen digu enpresa-izaerakoak ez diren ikerketa zentroetan osasun ikerketara bideratzen diren zenbatekoei buruzko erreferentzia bat izateko.

Aldi horretan, zergen itzulketak kenduta, zenbatekoa 11 milioikoa da, eta kopuru horretan transferentziek 8,3 milioi egiten dute.

Honako hauek dira 11 milioi horien kontzeptu nagusiak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Zentro teknologikoak finkatzeko diru-laguntzak	6.216.116
Prestakuntzarako eta Ikerketa eta Garapenerako Planerako laguntzak	1.204.059
Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekiko hitzarmena	1.340.000
Proiektu sektorialetarako eta arlokako proiektuetarako kapitaleko transferentziak	1.502.530
Guztira	10.262.705

Hau da, lau kontzeptu horiek FIMAK Nafarroako aurrekontuetako funtsetatik jasotakoaren ehuneko 93 egiten dute.

Aurrekontuek ikerketara bideratzen dituzten kontusailak alde batera utzita, Kontuen Ganberaren 2014ko urriko "SODENA enpresa publikoaren finantza-inbertsioak (2002-2013)" izeneko txostenean iruzkindutako datuen arabera —hartara jotzeko eskatzen dugu—, SODENAK ehuneko 10eko partaidetza izan zuen CIMA proiektuaren enpresen aldi baterako batasunean, guztira 14,8 milioi euro jarrita. SODENAK ezin izan du diru hori berreskuratu.

Halaber, aipatu nahi dugu, 2016ko apirilean hedabideetan zabalduko albiste baten arabera, Cinfa enpresak, zeinak medikamentuen produkzioan jarduten baitu, aurreikusita zeukala datozen hiru urteetan 87 milioi euro inbertitzea I+G+b arloan.

Gure ustez, datu multzo horrek aukera ematen digu ikerketara bideratutako funtsen eta epe laburrean emaitza ekonomikoak lortzeko zailtasunaren ikuspegi konparatibo bat edukitzeko.

V.4. MIGUEL SERVET-NAVARRABIOMED FUNDAZIOAREN JARDUERA

Ondoren, zenbait datu emanen ditugu Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioaren jarduerari buruz, haren jarduera ulertu eta baloratu ahal izateko.

V.4.1. Erakina

2011n amaitu zen egiten. Haren espazioak honako taula honetan xehakatu ditugu:

IBZaren espazio-banaketa	m ² guztiak	Navarrabiomeden m ² -ak	%	Nafarroako laborategi bateratua-ren m ² -ak	%	Biltegiak m ² -ak	%	Erabilera komuneko m ² -ak	%	Liburutegiko m ² -ak	%
Sotoa	3.156	776	25	-	-	2.379	75	-	-	-	-
Beheko solairua	2.368	769	32	210	9	-	-	1.015	43	375	16
1. solairua	2.427	-	-	2.427	100	-	-	-	-	-	-
2. solairua	2.427	2.427	100	-	-	-	-	-	-	-	-
Honaino, guztira	10.378	3.972	38	2.637	25	2.379	23	1.015	10	375	4
1. estalkia	1.069	-	-	-	-	-	-	1.069	-	-	-
2. estalkia	319	-	-	-	-	-	-	319	-	-	-
Guztira	11.765	3.972	34	2.637	22	2.379	20	2402	21	375	3

Datu hauetatik ondoriozta daitekeen bezala, Navarrabiomedek espazioaren ehuneko 34 erabiltzen du; laborategiak, ehuneko 22, eta biltegiak, ehuneko 20. Gainerako ehuneko 23a espazio komunitarako eta liburutegirako erabiltzen da.

Erreferentzia gisa aipa daiteke Biodonostia Osasun Ikerketarako Institutuak, zeinak Carlos III.a Institutuaren ikerketarako ziurtagiria baitu, egitura gehiagorekin (125 pertsona) eta ikerketa gehiago eginez (2014an, 136 proiektu zeuden abian) guztira 3.597 m² dituen lokal bat erabiltzen duela, eta metro horietatik 2.890 m² ikerketarako eta prestakuntzarako erabiltzen dituela eta 707 m², berriz, kudeaketaren arloko egoitzek hartzen dituztela.

Bestalde, aipatu beharra dago erakinak "G" energia-kalifikazio duela; hau da, efizientzia txikieneko.

V.4.2. Langileak

Miguel Servet Fundazioak langile berekien egitura bat dauka. Langile horiek Fundazioak berak kontratatzen ditu, eta bertan honakoak sartzen dira: zuzendaritza eta bulegoa, ikerketa laguntzeko unitate desberdinak (Osasun Departamentuko langileen ikerlana dinamizatzen duen entitate gisa), plataforma teknologikoak, ikerketa klinikorako unitatea (saiakuntza klinikoak egiteko) eta ikertzaile berekiak.

Horretaz gainera, fundazioak ikerketa proiektuetarako eta saiakuntza jakinetarako ikertzaileak eta datu-kudeatzaileak kontratatzen ditu (ikertzaile berekien edo laguntzaileen deialdien bitartez). Haien gastua laguntza ematen duen entitateak (ehuneko 100ean edo zati batean, eta azken kasu horretan Miguel Servet Fundazioak hartzen du defizita bere gain) edo farmazia-enpresek ordaintzen dute.

Urtean zehar 108 pertsonak egin dute lan: lanaldi osoan 66 pertsonak lan egitearen parekoa da hori. 108 pertsona horietatik, 37k Fundazioaren kargura finantzatu behar diren lanak egiten dituzte; gainerako 71k lortutako proiektuen kargura finantzatzen dira. Abenduaren 31n, 75 pertsona ziren.

Honako hau izan da haien gastua 2008tik:

Adjudikazio	Langile-gastuak*	12-31n lanean ari ziren per- sonak	Batez bestekoa
2008	83.072	-	6,75
2009	384.737	-	11,6
2010	735.316	-	21,8
2011	1.110.310	-	29,56
2012	1.236.557	49	33,02
2013	2.113.892	65	53,47
2014	2.469.508	76	63,51
2015	2.500.112	75	65,81

*Urte hasieran IBZn langilerik bazegoen, eta haien gastuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ordaintzen zituen.

Azken urteetan igoera bat gertatu dela antzeman da, Fundazioak irakaskuntza eta saiakuntza klinikak kudeatzeko lana egiten zuenetik 2009an hasitako bultzadara arte —estatutu-amaieratan gertatuko aldaketa—, orduan ikerketa kudeatzeko lanak esleitu baitzitzaizkion. Eta behin betiko jauzia 2012an eta 2013an gertatu zen: IBZren xurgatzea eta plataformak sortzea, eraikin berria egitea eta ikertzaileak sartzea.


Honako hauek ziren Fundazioaren langileak abenduaren 31n, kontratu motaren arabera:

Mota	Kopurua
Arduradun nagusiak	1
Zuzendaritzako gainerako langileak	1
Lan kontratu mugagabea	22
Lanaren iraupen jakina	51
Efektiboak, guztira	75

75 pertsona horiek honako zeregin hauetan jarduten zuten:

Zuzendaritza	2
Laguntzaileak (administrazioa, proiektuen kudeaketa, metodologia, ikerketa klinikoa, komunikazioa eta bioinformatika)	19
Plataformak (biobankua, proteomika, genomika*)	9
Ikerketa berekia (Neuroepigenetikako laborategia, ikertzaileak)	6
(Onkohematologia, Kardiologia eta Immunologia)	6
Teknikariak	
Egituraren guztizkoa, honaino	42
Proiektu jakin batzuetarako ikertzaileak eta kontratupeko bestelako langileak, proiektuen bidez finantzatuak	33
Guztira	75

*Genomika Biologiaren arlo bat da, genomen azterketa helburu duena. "Genoma" organismo batean adieraz daitezkeen ezaugarri guztiak zehazten dituzten geneen multzoa da.



Genomikako lanak

Fundazioaren inguruan, ikertzaile laguntzaileak daude, zeinak beren lanaldiaren zati bat ikerketan ematen duten Osasun Departamentuko langileak baitira. 256 pertsona inguru dira, arduraldi maila desberdinekin.

Hartara, ikusten dugu fundazioan hainbat jatorritako langileak daudela, lan baldintza eta lanaldi desberdinekin.

Fundazioak eta departamentuak sinatu dituzten hitzarmenetan honako zenbateko hauek esleitu zaizkio fundazioari funtzionamendu-gastuetarako:

Adjudikazio	Hitzarmenaren zenbatekoa*
2009	200.000
2010	350.000
2011	500.000
2012	768.606
2013	920.147
2014	970.000
2015	985.000

*2012ra arte, IBZren gastuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak finantzatzen zituen.

Hala eta guztiz ere, gogorazi beharra dago proiektuetako diru-sarreraren ehuneko handi baten xedea fundazioaren finantzaketa dela (V.2.1 atala).

Ondoren aztertuko dugu 2015ean nola finantzatu den fundazioaren egitura.

Langile-gastuetatik 2,5 milioi egiturazko gastua dena —hau da, proiektu jakinen bitartez finantzatzen ez dena— 1,4 milioi dira; horiei fundazioak bere gain hartzen dituen funtzionamendu orokorreko gastuak gehitu behar zaizkie, eta 380.000 euro inguru dira. Haien finantzaketa hitzarmenetik heldu da —esan dugun bezala, 985.000 euro dira— eta proiektuen bidez fundaziorako egiten diren ekarpenen bidez eta bestelako finantzabideekin osatzen da.

Bestalde, kontuan hartu beharra dago eraikinak dituen gastu batzuk Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ordiantzen dituela; funtsean, argia, ura eta gasa dira. Navarrabiomeden gastu horiek 142.675 eurokoak dira.

Laburbilduz, Navarrabiomeden egitura-gastuak eta haien finantzaketa honela burutu ziren 2015ean:

Gastuak	Zenbatekoa	Finantzaketa		
		Nafarroako Gobernua	Ekarpenak Proiektuak	Saldoa
Langileak	1.437.389			
Funtzionamendua	384.122			
Miguel Servet Fundazioak ordaindutakoak, guztira	1.821.511	985.000	299.105	-537.406
Osasunbideak ordaindutako funtzionamendu-gastuak	142.675	142.675		0
Guztira	1.964.186	1.127.675	299.105	-537.406

Datu hauetatik ondorioztatzen denez, 2015ean Nafarroako Gobernuak egituraren finantzaketan milioi erdi bat euroko defizita izan zuen.

V.4.3. Proiektuen eta ikerketa-arloen finantzaketa

V.4.3.1. Ikerketa proiektuak



Navarrabiomeden laborategietako bat

Oro har, ikerketa zentroetan egitura finkoko atal bat badago, zeina diru-sarrera orokorrekin finantzatu behar baita, eta, bestetik, proiektuen gastuak daude, hainbat ikerketa-plan edo -lehiaketetatik heldutako diru-laguntzekin finantzatzen direnak. Hori dela eta, garrantzitsua da jakitea zenbateko finantzaketa lortzen den, horrek ikerketak egiteko aukera ematen baitu.

Hartara, 2012tik 2015era, ikerketa-proiektuetarako kobratutakoek honako jatorri hau zeukaten:

Finantzatzailea	Diru-sarrerak	Proiektu kopurua	Proiektu bakoitzaren batez besteko zenbatekoa
Estatua	2.503.706	29	86.335
Europa	448.125	3	149.375
Nafarroako Gobernua	431.335	12	35.945
Bestelakoak	411.999	14	29.428
Orokorra, guztira	3.795.165	58	65.434

Estatuko finantzaketa ondokoetatik dator:

Finantzaizailea	Guztira	Ehunekoa
Carlos III.a Osasun Institutua	2.070.079	83
Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa	328.500	13
Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioa	105.128	4
Orokorra, guztira	2.503.706	100

Hau da, Carlos III.a Osasun Institututik heldu direla estatutik jasotako diru-sarreraren ehuneko 83 eta ikerketa-proiektuetarako diru-sarreraren ehuneko 55.

Estatuko 29 proiektuek aurrekontu desberdinak dituzte. Ondoren, bi handienen eta bi txikienen datuak ematen ditugu:

Lehiaketaren urtea	Finantzaizailea	Ikertzaile nagusiaren jatorrizko zentroa	Ikerketa	Arloa	Guztira
2013	Carlos III.a Osasun Institutua	MSF	Kardiobaskularra	Kardiologia	324.000
2012	Carlos III.a Osasun Institutua	MSF	Immunomodulazioa	Minbizia; Kantzerra	273.375
2012	Carlos III.a Osasun Institutua	Buru Osasuna	Minbizia dutenen bizi kalitatea	Psikologia	16.819
2012	Carlos III.a Osasun Institutua	Nafarroako Ospitalegunea	Anestesia	Anestesia	4.235

Europako finantzaketa honako proiektu hauei dagokie:

Adjudikazio	3 proiektu	Ikerketaren gaia	Arloa	Zenbatekoa	Ehunekoa
2013	Fibrotargetak-	Kardiobaskularra	Kardiologia	358.000	80
2012	Jamie-	Larrialdiak	Larrialdiak	28.496	6
2012	Cochrane	Arrisku kardiobaskularra	Oinarrizko osasun-laguntza	61.629	14
Europa, guztira				448.125	

Ikus daitekeen bezala, proiektuen zenbatekoak askotarikoak dira, eta horietako batek guztizkoaren ehuneko 80 hartzen du.

Honako hauek dira Nafarroako Gobernuak finantzaturako proiektuak, zenbatekoaren arabera ordenatuak:

Proiektua	Ikerketaren jatorrizko zentroa	ikerketaren alorra	Zenbatekoa
NG 21/11	Ospitalegunea	Minbizia; Kantzerra	57.702
NG 33/14	Miguel Servet Fundazioa	Minbizia; Kantzerra	52.882
NG 101/11	Ospitalegunea	Psikologia	50.778
NG 75/14	Ospitalegunea	Geriatría	48.343
44-15	Miguel Servet Fundazioa	Kardiologia	41.622
NG 31/14	Ospitalegunea	Minbizia; Kantzerra	41.418
NG 87/14	Buru Osasuna	Psikologia	40.600
NG 20/11	Ospitalegunea	Minbizia; Kantzerra	27.968
NG 13/11	Ospitalegunea	Larrialdiak	25.208
NG 109/11	Ospitalegunea	Minbizia; Kantzerra	20.700
15-15	Ospitalegunea	Mikrobiologia	17.019
06-15	Oinarrizko Osasun Laguntza	Oinarrizko Osasun Laguntza	7.096
Guztira			431.335

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, Nafarroako Ospitaleguneko ikertzaileek proiektuetako zenbatekoen ehuneko 67 hartzen dute, eta Nabarrabiemedekoek, berriz, ehuneko 22; arloei erreparatuta, berriz, minbiziak hartzen du Nafarroako Gobernuak finantzatutako ikerketaren ehuneko 47.

Honako hauek dira beste entitate batzuek finantzatutako proiektuen xehetasunak:

Entitatea	Zenbatekoa	Proiektu kopurua
Nafarroako Kutxa Fundazioa	213.503	9
BIOEF (Osasunaren Berrikuntzarako eta Ikerketarako Euskal Fundazioa)	145.920	2
Bestelakoak	52.575	3
Guztira	411.999	14

Ikus daitekeen bezala, zenbatekoaren eta proiektuen zatirik handiena Nafarroako Kutxa Fundazioak finantzatzen ditu.

V.4.3.2 Ikerketa arloak

3,8 milioiekin honako arlo hauetan ikertu da:

Arloa	Diru-sarrera	Proiektu kopurua	Proiektu bakoitzaren batez besteko zenbatekoa
Minbizia; Kantzerra	1.152.246	20	57.612
Kardiologia	780.737	5	156.147
Psikologia	308.782	5	61.756
Neurologia	305.989	6	50.998
Biobankua	265.757	2	132.878
Osasun Publikoa	189.778	3	63.259
Alergologia	142.157	1	142.157
Prebentzioa	133.978	2	66.989
Oinarrizko Osasun Laguntza	113.865	4	28.466
Oftalmologia	104.170	1	104.170
Endokrinoa	60.046	1	60.046
Larrialdiak	53.704	2	26.852
Geriatría	48.343	1	48.343
Pneumologia	41.140	1	41.140
Prebentzio-medikuntza	38.720	1	38.720
Infekziosoak	34.500	1	34.500
Mikrobiologia	17.019	1	17.019
Anestesia	4.235	1	4.235
Orokorra, guztira	3.795.165	58	65.434

Datuetatik ondorioztatzen denez, minbizia da ikerketa arlo nagusia, baina desberdintasunik badago 20 proiektuen artean. Ondoren, bi handienak eta bi txikienak aipatuko ditugu:

Minbizia; Kantzerra	Finantzatzailea	Proiektua		Zenbatekoa
Estatua	Carlos III.a Osasun Institutua	CP12/03114	Immunomodulazioa	273.375
Estatua	Carlos III.a Osasun Institutua	PI14-00579	Zelula Mieloideak	111.925
Bestelakoak	Sandra Ibarra Fundazioa	Sandra Ibarra	Bularreko minbizia	20.000
Bestelakoak	Nafarroako Kutxa Fundazioa	70530	Estroma-zelulak	19.150

Ikertzaile nagusiari erreparatuta, honela sortzen da 3,8 milioiko kopurua

Ikertzaile nagusiaren jatorrizko zentroa	Diru-sarrera	Ehunekoa	Proiektu kopurua
MSF	2.035.830	54	22
Nafarroako Ospitalegunea	970.665	26	22
Osasun Publikoaren Institutua	442.941	12	7
Buru Osasuna	258.004	7	4
Oinarrizko Osasun Laguntza	87.725	2	3
Orokorra, guztira	3.795.165	100	58

Miguel Servet Fundazioko ikertzaileek 22 proiektu lortu dituzte, guztizkoaren ehuneko 54.

Ikerketa taldea	Diru-sarrera	Proiektuak	Ehunekoa
Kardiologia	723.622	4	36
Immunomodulazioa eta Minbiziaren Epigenetika	438.210	4	22
Biobankua	265.757	3	13
Proteomika	165.803	3	8
Neuroepigenetika	140.186	2	7
Genomika	132.925	2	7
Onkohematologia	124.188	2	6
Metodologia	45.140	2	2
	2.035.830	22	100



Hozkailuetan kontserbatutako burmuinak

V.4.4 Saiakuntza klinikoak

Sendagaiekin egindako ikerketa klinikoko proiektuak, aurrez banaka kudeatzen zituen fakultatibo-ikertzaileak, eta harengana jotzen zuen sustatzaileak. Ikertzaileek diruaren ehuneko 100 jasotzen zuten, eta beraiek kudeatzen zuten.

Osasuneko kontseilariaren 125/2009 Foru Agindua, argitaratzearekin, arlo honetan jarraitu beharreko prozesu eta irizpideak ezarri ziren. Ondokoak azpimarratuko ditugu:

- Foru aginduaren xedea da jarduera horren kudeaketa Miguel Servet Fundazioan zentralizatzea.
- Miguel Servet Fundazioa, ikerketa laguntzeko eta sustatzeko organo gisa, proiektu horien kudeatzaile materiala da.
- Era horretako proiektu bat egiteko prozesua ezartzen da. Nabarmendu beharra dago ezen, kontratua sinatu aurretik, Ikerketa Klinikorako Komite Etikoak (IKKE) baimendu behar duela kasuko saiakuntza
- Behin baimena emanda, proiektua kontratu baten bidez zehaztuko da. Miguel Servet Fundazioak kontratueterako eredu bakarra dauka, eta sustatzaileak, ikertzaile nagusiak, kasuko ospitale-zentroak eta Miguel Servet Fundazioak sinatzen dute.
- Funts guztiak Miguel Servet Fundazioak kudeatzen ditu. Erregulazio horrekin berariaz debekatzen da fakultatiboek/ikertzaile nagusiek proiektu horiek direla-eta zuzenean dirurik jasotzea sustatzailearengandik.
- Funts-banaketa bat ezartzen da, zeinak nolnahi ere Fundazioan kontabilitate-kontu bat izanen baitu zentro-ikertzaile bakoitzerako:
 - a) Ikertzaile nagusiak ehuneko 25 izanen du.
 - b) Ikerketa-taldeak ehuneko 35 izanen du. Farmazia Zerbitzuak parte hartzen ez badu, ehuneko 40 izanen da.
 - c) Farmazia Zerbitzuak ehuneko 5 izanen du.
 - d) Osasun zentroak ehuneko 20.
 - e) Miguel Servet Fundazioak ehuneko 15.

Fundazioko zuzendariaren 2013ko eta 2016ko jarraibideetan, gehiago zehazten dira arloa dela-eta jarraitu beharreko irizpideak. Hartara, ikertzaile nagusiek aukera dute lansariaren ehuneko 25 nominaren bidez jasotzeko ala diru hori Miguel Servet Fundazioaren esku uzteko, ikerketa jarduera susta dezan. Bigarrena hautatzen badute, funtsen kudeaketa gastu hautagarri buruz ezarritako arauen arabera eginen da. Gainera, saiakuntzako kontabilitate-kontuen kargurako ekipamendua eskuratzeko galdetegi bat ezartzen da, zeina ikertzaileek bete beharko baitute ekipamenduaren beharra eta egin beharreko lanari nola egokitzen zaiola justifikatuz.

Laburbilduz, gure ustez azken jarraibide horiekin nabarmen hobetzen da saiakuntza klinikoetarako funtsen erregulazioa eta, horrenbestez, haien kudeaketa.

2012tik 2015era egindako jarduera, zerbitzu medikoen sailkatua, honako taula honetatik ondorioztatzen den da:

Zerbitzua	Kobratutako zenbatekoa, guztira	Saiakuntza kopurua	Ehunekoa
Hematologia Zerbitzua	759.009	178	32
Onkologia Zerbitzuak	661.620	165	28
Neurologia Zerbitzua	168.858	43	7
Pneumologia Zerbitzua	129.852	11	6
Pediatria Zerbitzua	112.497	42	5
Barne Medikuntzako Zerbitzua	81.067	29	3
Alergologia Zerbitzua	72.791	18	3
Kardiologia Zerbitzua	67.655	24	3
Lehen mailako arretako taldeak	55.907	17	2
Nefrologia Zerbitzua	54.997	8	2
Dermatologia Zerbitzua	45.463	6	2
Urologia Zerbitzua	27.498	9	1

Anestesia eta Konorteratze Zerbitzua	22.827	9	1
Erreumatologia Zerbitzua	19.167	6	1
Digestio Aparatuaren Zerbitzua	15.491	13	1
Errehabilitazio Zerbitzua	13.341	8	1
Endokrinologia eta Nutrizio Zerbitzua	11.886	4	1
Erradiagnostikoko Zerbitzua	8.100	1	0
Larrialdietako Zerbitzua	6.897	4	0
Angiologia eta Kirurgia Kardiobaskularren Zerbitzua	4.908	2	0
Oftalmologia Zerbitzua	4.069	8	0
Buru Osasuneko Lantaldea	3.574	3	0
Lizarrako Larrialdietarako Zerbitzu Arrunta	3.449	2	0
Eritasun Infekziosoen Zerbitzua	2.783	3	0
Obstetria eta Ginekologia Zerbitzua	605	1	0
Orokorra, guztira	2.354.313	614	100

Ikus daitekeen bezala, 2012tik 2015era guztira 614 saiakuntza eta azterlan egin dira guztira. Kopuruari erreparatuta, hematologia eta onkologia zerbitzuek guztizkoaren ehuneko 60 egiten dute.

2012-2015 aldian, honako zerbitzuetakoak izan dira 95.000 eurotik gorako saiakuntzak:

Ikertzaile nagusia	Zerbitzua	Kobratutako zenbatekoa, guztira	Saiakuntza kopurua
1. ikertzailea	Hematologia Zerbitzua	315.223	103
2. ikertzailea	Hematologia Zerbitzua	271.772	42
3. ikertzailea	Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzua	158.827	48
4. ikertzailea	Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzua	154.761	49
5. ikertzailea	Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzua	126.961	6
6. ikertzailea	Pneumologia Zerbitzua	114.727	7
7. ikertzailea	Nafarroako Ospitaleko Onkologia Zerbitzua	98.377	22
Guztira		1.240.647	277

Zazpi ikertzaile nagusik 95.000 euro baino gehiago egiten duten saiakuntza eta azterlanak lortu dituzte, eta 1.240.647 euro egiten dute guztia; hau da, saiakuntzen guztizko zenbatekoaren ehuneko 53.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

ERANSKINA

MIGUEL SERVET FUNDAZIOAREN EGOERARI BURUZKO BALANTZEAK, 2009-2015 URTEETAKOAK

Aktiboa	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Aktibo ez-arrunta	135.366	88.438	134.296	207.650	182.988	546.658	865.442
Ibilgetu ukiezina	90.221	58.472	30.988	15.816	14.114	25.874	28.446
Ibilgetu materiala	45.145	29.966	103.308	191.834	168.874	520.784	836.996
Aktibo arrunta	1.376.656	2.302.750	3.037.154	3.994.780	4.818.830	5.752.668	5.055.675
Erabiltzaileak eta jarduera berekiko beste zordun batzuk	236.734	105.915	735.785	789.831	1.770.545	2.090.418	1.495.345
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk			5.684	548.250	402.398	1.305.504	991.160
Finantza-inbertsioak epe laburrera	828.536	838.700	1.600.001	2.110.478	1.527.300	1.509.348	750.952
Ezarrirako aldiak	8.136	18.983		133	133	133	133
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	303.250	1.339.152	695.684	546.088	1.118.454	847.265	1.818.085
Aktiboa, guztira	1.512.022	2.391.188	3.171.450	4.202.430	5.001.818	6.299.326	5.921.117
Ondare garbia eta pasiboa	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Ondare garbia	667.955	1.308.498	1.709.465	2.009.656	1.421.708	1.540.498	1.190.447
Funts berekiak	71.490	202.646	281.447	400.689	414.260	419.480	- 167.131
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	596.465	1.105.852	1.428.018	1.608.967	1.007.448	1.121.018	1.357.578
Pasibo arrunta	844.067	1.082.690	1.461.985	2.192.774	3.580.110	4.758.828	4.730.670
Epe laburreko homikuntza	-	-	-	-	5.848	5.848	-
Epe laburreko zorrak	-	-	-	181.499	1.167.749	1.927.184	2.018.750
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	100.679	127.863	126.608	150.171	192.834	600.619	345.075
Aldizkatzeak	743.388	954.827	1.335.377	1.861.104	2.213.679	2.225.177	2.366.845
Pasiboa, guztira	1.512.022	2.391.188	3.171.450	4.202.430	5.001.818	6.299.326	5.921.117

MIGUEL SERVET FUNDAZIOAREN EMAITZEN KONTUAK, 2009-2015 URTEETAKOAK

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	821.495	1.441.491	1.941.633	2.149.607	2.909.352	3.330.779	3.593.396
Sustapen, babesle eta laguntzaileak direla eta izaniko diru-sarrerak	335.440	249.222	422.019	370.513	545.330	948.583	820.461
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak	486.055	1.192.269	1.519.614	1.779.094	2.364.022	2.382.196	2.772.935
Laguntzak eta beste direla-eta izandako gastuak						-	-589.967
Hornidurak	-26.397	-34.327	-111.059	-83.776	-267.866	-279.715	-342.384
Jardueraren bestelako diru-sarrerak			196.865	225.113	171.304	173.708	297.733
Langile-gastuak	-384.737	-735.316	-	-	-	-	-
Jardueraren bestelako gastuak	-394.817	-491.714	-781.038	-908.879	-705.645	-711.452	-831.340
Ibilgetuaren amortizazioa	-29.918	-113.615	-101.803	-62.281	-61.106	-68.139	-124.751
Ekitaldiaren soberakinari transferitutako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	28.177	35.945				-	-
Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura			-292	-722		-	-
Ohiz kanpoko emaitzak		495	7758	-11.550	13.493		
Jardueraren soberakina	13.803	102.959	41.754	70.955	-54.360	-24.327	-497.425
Diru-sarrera finantzarioak	17.606	10.576	36.140	48.287	67.931	29.547	10.774
Finantza-gastuak						-	-56
Finantza-eragiketen soberakina	17.606	10.252	36.140	48.287	67.931	29.547	10.718
Zergak ordaindu aurreko soberakina	31.409	113.535	77.894	119.242	13.571	5.220	-486.707

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**MIGUEL SERVET FUNDAZIOARI BURUZKO KONTUEN GANBARAREN BEHIN-BEHINEKO FISKALIZAZIO-TXOSTENARI MIGUEL SERVET FUNDAZIOAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.**

AURKIBIDEA

I. Sarrera

II. Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioari buruzko fiskalizazio txostenari aurkeztutako alegazioak

V.1. Osasun ikerketa publikoaren antolaketa

V.1.2 Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioa

V.1.3 Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua (IdiSNA)

V.3. Datu ekonomikoak

V.3.1. Miguel Servet Fundazioaren funtzionamendu gastuen bilakaera

V.3.3. Osasun ikerketara bideratutako aurrekontu-funtsak

1. Sarrera.

Dokumentu hau Miguel Servet Fundazioak egin du bidezko diren alegazioak aurkezteko, Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan eta erakunde horren prozedurei buruzko eskuliburuan xedatuari jarraituz, bai eta Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2016ko abuztuaren 8ko ebazpenean jasotakoari jarraituz ere.

II. Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioari buruzko fiskalizazio txostenari aurkeztutako alegazioak.

Ondoren, egokitzat jo dugu azaltzea "Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioari buruzko behin-behineko fiskalizazio txosteneko" "Egindako lanaren azterketa" izenburuko V. ataleko zenbait epigraferi aurkeztutako alegazio guztiak.

V.1. Osasun ikerketa publikoaren antolaketa.V.1.2 Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioa

Behin-behineko fiskalizazio txosteneko 23. orrialdeko ** oharrean, Proteomika Unitatearen jardura azalzerakoan, honako hau esaten da: "Navarrabiomed Fundazioaren plataforma teknologikoa, zeinaren jardura nagusia baita ehunetatik, zelulen kultiboetatik eta jariakin biologikoetatik proteinak ateratzea, haiek aztertze aldera".

Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioan uste dugu deskribapen zehatzagoa honako hau izanen litza-tekeela: "Navarrabiomed Fundazioaren plataforma teknologikoa, zeinaren jardura nagusia baita ehunetatik, zelulen kultiboetatik eta jariakin biologikoetatik ateratako proteinak **analizatu eta identifikatzea**, haiek gero aztertu ahal izateko".

V.1.3 Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua (IdiSNA)

Behin-behineko fiskalizazio txosteneko 25. orrialdean honako hau aipatzen da: "Carlos III.a Institutuari ziurtagiria eskatu zaio, eta horrek alde aurretiko auditoria egin du..."

Osasun ikerketarako institutu gisa ziurtatzeko eskaera Carlos III. Institutuak egin dezakeen alde aurreko auditoriaren ondorengoa da. Behin Carlos III.a Institutuak alde aurreko auditoriaren ondoren egiten duen txostena jasota, bidezkoa bada, zenbat jarduketa egiten dira, alde aurreko auditoria-txosteneko iradokizunei erantzuna ematean oinarritzen direnak.

Horrenbestez, IdiSNAn sartutako zentroek azken urrats hori eman ez dutenez, egiazki ez da ziurtatzerik eskatu.

Hori dela eta, Miguel Servet-Navarrabiomed Fundaziotik egokiagotzat jotzen da honako hau esatea: **“IdiSNA osasun ikerketarako institutu gisa ziurtatzeko prozesua hasi da, Carlos III.a Institutuak alde aurreko auditoria egin ondoren”.**

V.3. Datu ekonomikoak.

V.3.1. Miguel Servet Fundazioaren funtzionamendu gastuen bilakaera

Behin-behineko txosteneko 32. orrialdeak datuen taula bat jasotzen du. Taula horrek IBZk eta Fundazioak izan dituzten funtzionamendu-gastuen bilakaera aurkezten du. Hartan, langile-gastuak eta ondasunen eta zerbitzuen arloko gastuak bereizten dira.

Lehenengo, Miguel Servet-Navarrabiomed Fundaziotik jotzen dugu aipatu beharra dagoela taulan jasotako informazioa eurotan emana dagoela, datuak interpretatzerakoan akatsak saiheste aldera.

“Langile-gastuak” atalari dagokionez, bai Fundazioko oinarrizko egitura osatzen duten langileak, bai Fundazioaren bidez kontratatutako langileak biltzen dira, nahiz eta azken horiek lotuta egon finantzabidea lortu delako abian jarri diren osasun ikerketako proiektuekin.

Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioaren iritziz, enpleguaren gaineko eraginari eta ikerketa-jarduera handitzea ekarri duen Fundazioko langileen kontratazioak gora egin izanari buruzko deskribapen hobea emanen zen baldin eta egiturazko langile-gastuak eta osasun ikerketako proiektuei lotutako langileen gastuak berezita.

Antzeko bereizketa bat egin liteke “Ondasunen eta zerbitzuen arloko gastuak” atalean, Fundazioaren egiturari lotutako gastuen eta ikerketa-proiektuei lotutako gastuen artean, zeren eta osasun arloko ikerketa-proiektuen gorakadari lotuta haiek aurrera eraman ahal izateko ondasunetan eta zerbitzuetan egin beharreko gastuak bai baitaude.

Hori guztia dela eta, Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioak jotzen du “Miguel Servet Fundazioaren funtzionamendu gastuen bilakaera” izenburua daraman V.3.1 azpiatalean ageri den ondorioa, *“Taulako datuetatik ondoriozta daitekeen bezala, 2009tik 2015era gastuak ehuneko 191 egin du gora...”*, zehaztu egin litekeela, hain zuzen ere 2009-2015 aldirako aipatutako gastu-gorakada funtsean azaltzen delako finantzaketa lortu deneko eta abian jarri direneko ikerketa-proiektu berrietarako lotutako gastuek gora egi-tearekin.

IBZren eta Fundazioaren funtzionamendu-gastuen bilakaerari buruzko informazioa egiturazko gastuaren eta ikerketa-proiektuei lotutako gastua bereizi gabe, oro har gastuen gorakada finantzatu duten funtsen jatorriari buruzko ondorio okerra ateratzeko bidea ematen da.

V.3.3. Osasun ikerketara bideratutako aurrekontu-funtsak

Behin-behineko txosteneko 35. orrialdean, Osasun Departamentuari buruz ari dela, V.3.3.1 atalean, honako aipatzen da: *“Baldin eta zorrozki ikerketara bideratutako 4,9 milioiak kontuan hartzen baditugu, haien garrantzia Departamentuaren gastu guztien ehuneko 0,13koa da”.*

Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioaren iritziz, egokia litzateke aipatutako testua honela idaztea: *“Baldin eta zorrozki ikerketa **publiko eta pribatura** bideratutako 4,9 milioiak kontuan hartzen baditugu, haien garrantzia Departamentuaren gastu guztien ehuneko 0,13koa da”.*

MIGUEL SERVET-NAVARRABIOMED FUNDAZIOARI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI OSASUN DEPARTAMENTUAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.

Nafarroako Kontuen Ganberak egin duen “Miguel Servet Fundazioari eta Nafarroako Foru Komunitateko osasun-ikerketa publikoaren finantza-iturriari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena (2009-2015 aldiari buruzkoa)” jasota, Osasun Departamentuak egokitzen du honako alegazio hauek egitea:

9. ondorioa

Hau dioen tokian:

9.a Miguel Servet Fundazioaren guztizko gastu korrontekak (langileak eta erosketak) 3,7 milioikoak dira 2015ean; horrek esan nahi du 2009ko gastuekin alderatuta ehuneko 191ko igoera gertatu dela.

Honako esan beharko luke:

9.a Miguel Servet Fundazioaren guztizko gastu arruntak (langileak eta erosketak) 3,7 milioikoak dira 2015ean; horrek esan nahi du 2009koen aldean ehuneko 191ko gorakada izan dela, eta haren inflexio pun-

tuak bat datoz osasun ikerketa, 2010ean eta 2011n indartzeko erabakiarekin, eta IBZa eta haren fundazioa integratzearekin, 2013an, bai eta abian jarri diren eta lehia bidezko deialdietan finantzaketa lortu deneko ikerketa proiektu berriei lotutako gastuek gora egitearekin ere.

Justifikazioa: Proposatzen dugun erredakzioak aintzat hartzen du txosteneko 32. orrialdean erabilitakoa, eta errealitatearen irudi fidelagoa transmititzen du, bereziki txosten osoa eskuratzetik izan ez dutenentzat. Bestalde, egokitzen dugun nabarmentzea Fundazioaren langile-egitura eta ikertzaile berekien taldea indartzeko egin den ahaleginak jada emaitzak ekartzen hasia dela, zeren eta aukera eman baitu proiektu berriei ekiteko eta lehia bidezko finantzaketa eskuratzeko.

11. ondorioa

Hau dioen tokian:

11.a Lau urteko aldi (2012-2015), Osasun Departamentuak honako gastu-zenbatekoak izan ditu osasun ikerketaren arloa dela eta:

Honako esan beharko luke:

2009tik 2015era, Miguel Servet fundazioan urtean zehar lan egiten zuten pertsonen batez bestekoa 11,6koa izatetik 65,8koa izatera pasa da, eta jarduerarako diru-sarrerak 0,8 milioikoak izatetik 3,6 milioikoak izatera pasa dira; horrek adierazten digu fundazioaren jarduerak gora egin duela. Nolanahi ere, alderaketa kontu handiz egin beharra dago, zeren eta emandako zenbatekoetan soilik Fundazioko langileak ari baitira aintzat hartzen. Kontuan hartu beharra dago 2009an IBZri atxikitako langileak Nafarroako Osasun Zerbitzukoak zirela, eta aldi horretan proiektuetarako kontratatutako langileak ez direla beti Fundazioaren kargura kontratatu.

Justifikazioa: Proposatzen dugun erredakzioak errealitatearen irudi fidelagoa transmititzen du, bereziki txosten osoa eskuratzetik izan ez dutenentzat.

6. gomendioa.

Departamentu honek beharrezkotzat jotzen du honako gomendio hau argitzea: *“Behar diren jarduketak egitea Navarrabiomed Osasun Departamentuaren multzoan sar dadin espezialitateetako eta oinarriko osasun laguntzako langileen lanean laguntzen duen eta lan horiosatzen duen “zerbitzu” gisa”*.

Nolanahi ere, aintzat hartu beharra dago Miguel Servet Fundazioa Osasunari buruzko Foru Legean aurreikusita dagoela, eta jotzen dela haren eginkizuna hertsiki beharrezkoa dela ikerketa-proiektuen kudeaketatik heldu diren berezitasun administratiboei euskarria emateko; izan ere, proiektu horiek, definizioz, urte anitzekoak dira, eta haien titular ekonomikoa ikerketarako laguntzak jasotzen dituen da, hau da, ikertzaile nagusia.

Nabarmendu nahi dugu ezen, erakunde honek jasotako jarraibideei jarraituz, idazki honetan egindako alegazioak behin-behineko txosteneko ondorioetan, gomendioetan eta iritzietan adierazitakoei buruzkoak direla.

Iruñean, 2016eko irailaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioak eta Osasuneko kontseilariak Miguel Servet Fundazioari buruzko behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak aztertuta, jotzen dugu ezen, Osasuneko kontseilariaren azken alegazioari dagokionez, zehaztu beharra daukagula ez dugula esan nahi Miguel Servet Fundazioa Osasun Departamentuan juridikoki sartu behar duenik, zeren eta orduan desagertuko balitzateke, baizik eta haren ikerketa-lanak, funtzionalki, Osasun Departamentuaren laguntza- eta prebentzio-lan garrantzitsuaren beste atal baten modura hartu beharko liratekeela.

Gainerako alegazioak argipenak, zehaztapenak edo justifikazioak dira, txostenaren edukia, funtsean, aldatzen ez dutenak.

Horrenbestez, jasotako alegazioak txostenari gehitu eta txostena behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2016ko irailaren 8an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

